

ataria

Txarangetan txarangenari

2020-02-14 1.188. zenbakia
107.6 fm www.ataria.eus





**Egin
dezagun
elkarbizitzaren
eta berdintasu-
naren alde
inauterietan**



Guztionak eta
guztiontzat.
Bizi, gozatu eta
errespetatu.



***Gora Tolosako
Inauteriak!!***

TOLOSA

Entzunkatzaileak

Kondairak dio bi trapu eta irudimena nahi-koa direla Tolosan mozorrotzeko. Kondairak dio edozein kale kantoitan topa litezke-ela herritarrak urte osoko mozorroa erantzi eta lanbide berriren bat asmatuta festa jar-tzen. Kondairak dio urtero agertzen dela la-runbatez bisitari mozorroturen bat eta txaranga doinuak entzun eta saltorik egin gabe geratzea ezinezkoa dela.

Garrantzitsua da kondairak entzutea. Entzutea eta

ikustea bi gauza desberdin direla ulertzea bezainbeste. Entzundako kondairak sines-ten jarraitu nahi izatera begiak ixtea hobe. Bestela azkarregi konturatuko zara behar-bada, ikusten ari zarenak salbuespen gero eta salbuespenago batzuetan bakarrik due-la entzundakoaren antza. Begiak itxiz gero ordea, belarriak arazo. Belarriak itxi ezina, batez ere. Eta horrixek heldzea erabaki dute agintariak aurtengo jai egunetarako arazo kategoria emanda.

Inauteriek badute, kondairak hala dio, agintarietako jarrera kritikoa plazaratzeko ahalmena. Horregatik otu zait, behingoa-gatik lerrook idazteak zerbaitetarako balio dezakeela si-netsita, aurtengo mozorro izarra aurreratzea: entzunka-tzaileak. Egunok espero baino lehen iritsi baldin bazaiz-

Horregatik otu zait, behingoa-gatik lerrook idaztea zerbaitetarako balio dezakeela sinetsita, aurtengo mozorro izarra aurreratzea: entzunkatzaileak.



ARANTXA ITURBE
IRRATILARIA

kizu, gaztetako pailazo mozorroa kabitzen ez bazaizu edo txilabari iaz egindako tarratada josten hasteko gogorik ez badaukazu, hara hemen ideia: bihur zaitez entzunkatzaile. Uniformerik gabea. Delitu egileak ezustean harrapatu-ko dituen.

Hartu etxean daukazu edozein gailu desgaitu. (Atzoko gailu gehienak dira gaur desgailu). Hamar urte-otan zertarako ote zen ahaztua duzun grabagailua, mo-dem zaharkitua, jada balio ez duen routerra, mikroon-dasa edo irratia... Izan dadila zerbait soi-nua neurtzeko balio duen itxura daukana. Eta segi harekin kalera. Neurtu soinuak eta musikak, neurtu hanka azpi-ko dardarak, neurtu konborsazioak eta kantukak, oihiak eta kexak. Neurtu zara-ta. Eta jakinarazi zarata egiten ari denari berea ez dela entzungarria. Hala esaten dutela besteek eta batez ere, zure neur-gailuak.

Gogora arazi, bide batez, soinua zara-ta bihurtzen den marra gaingiditzen ari direnez, festarako jasotzekoa zuten diru laguntzarik gabe geratuko direla. (Txi-

kikeria dirudi baina garrantzitsua da diru laguntzare-na aipatzea, norbaitek jolasa serio hartzea nahi badu-zu).

Entzunkatzailearena egiteaz aspertzen zarenean gorde neurgailua (gogoratu, *sinfalla*, inauteriak bukatutakoan garbigunera eramateaz) eta segi festara. Zeure festara. Za-rata jasangaitzetik urrun. Gogoko zarata gunetara. Bes-teentzat zarata den hori zuretzat soinua edo doinua den tokietara.

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Naiara Roldan de Aranguiz
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizaletxe **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 304346 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 - 687 4100 33 - 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 - publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 82 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Itzea Urkizu



Josu Sanchez, Joaquin Ortega 'Canario', Igor Agirre 'Topi' eta Mikel Zelaia 'Mirri'. ITZEA URKIZU ARSUAGA

Incansables txarangak jasoko du 2020ko Kabi Alai Kuttuna saria, Ostegun Gizenean. Urte biribila osatzera doaz, txarangaren mende erdiak bat egingo baitu, errekonozimendu inauterizalearekin. Txarangetan txarangena izan dira, eta datozen egunotan ere hori berrestera datoz: tolosarrek eurekin hasi eta bukatuko dituzte festak.

Itzea Urkizu Arsuaga

Izena beraiek aukeratutakoa izan ez bazen ere, denborak eman die izenari dagokion izana. Incansables txarangak nekaezin izaten jarraitzen du, 50 urteko ibilbidea osatzera doala. Mende erdia txarangen munduari dir-dira ateraz, eta 43 urte Tolosako inauterietan, Kabi Alai elkartearen blusa jantzita.

Elkarte tolosarrak ez du aitzakia gehiagorik behar izan, aurtengo Kabi Alai Kuttuna saria nori eman erabakitzeko: Incansables txarangako sortzailetako zenbaitek piztuko dute, aurtun, Ostegun Gizeneko suziria. Errekonozimendua pozez hartu dute egungo kideek, batez ere, Kabi Alairen eskutik datorren keinua delako. Haien izenean zeharkatzen dituzte inauterietako ia ordu guztiak, eta egun berezia espero dute, Ostegun Gizenak berez duen berezitasunetik harago.

Egiteko eta sortzeko modu berriekin, ezinbesteko mugaria izan dira txarangen munduan, eta horrek arduraren

kargaz bete izan du Incansablesen motxila. 1980ko hamarkadan, haien saioak irrati kaseteekin grabatzen zituzten zaleek, eta gaur egun txaranga zaleen *smartphone*ak betetzen dituzte.

Garai berrietara kantuz eta belaunaldi aldaketaz egokitu baita Incansables, nahiz eta, Asteartita gaua izan, oraindik ere, kide ohiek elkarrekin jotzeko hitzordua. Joaquin Ortega *Canario* hernaniarra da sorreraz geroztik txaranga ari den kide bakarra, eta musikari gazteenek bera dute txarangen mundua profesionalizatu izanaren arduradun.

Villabona, Tolosa eta Hernani artean, 50 urte ez dira nahikoa izan, txaranga nongotarra den zehazteko, baina Incansablesen beti aritu izan da hernaniarren bat edo tolosarren bat. Horrela, bi herrien arteko zubi bilakatu da Incansables, diotenez, batean bezainbesteko txaranga zaletasuna baitute, bestean ere. Grina horren plazarik jendetsuenetako bat zain izango dute, otsailaren 20ko eguerdian, inauterietako txupinazoa leherrarazteko zain.

«Bizitzarako eta musikarako balio duen eskola da Incansables»

05

INCANSABLES TXARANGA KABI ALAIKUTTUNA 2020

Berrogeita hamar urte laburbiltzeko lau mugarri izan litezke, Joaquín Ortega *Canario* (Hernani, 1951), Josu Sánchez (Tolosa, 1984), Mikel Zelaia *Mirri* (Tolosa, 1992) eta Igor Agirre *Topi* (Tolosa, 1993). Incansables txarangako kide dira laurak, sortzaileetako bat eta gerora txarangen hasitako hiru tolosar. Kabi Alai Kuttuna sariaren aitzakian elkartu dira, Kabi Alai elkartearen bertan, eta, musikari diren arren, hitzez ere ederki moldatu dira, ordubete pasatzoko elkarrizketan.

Bisaia gogorra du Canariok, begi-tarte zorrotza. Baina, txarangen unibertsoa hizpidera ekartzea nahikoa da, haren hitz-jarioa eragiteko. Berak sortua da Incansableseko erreperorioaren zatirik handiena eta, zalantzarik gabe, doinu horiek entzutea da haren sentsibiltatearekin topo egiteko biderik motzena. Sánchez, Zelaia eta Agirre, berriz, gazte eta labor aritu dira, baina pozik, txarangen txarangenaren belaunaldi berrietako bat osatu dutelako.

Nolatan sortu zen Kabi Alairen eta Incansables txarangen arteko harremana?

Canario: Incansables 1971. urtean sortu zen. Tolosan noi-

zean behin jotzen hasi ginen segituan, elkarte batekin zein bestearekin. Garai hartan, Kabi Alain bazen Jose Mari Amiano izeneko bazkide bat; elkarteko arima zen. Haren bitartez hasi zen harremana, Ostegun Gizenerako, orduan Pintxana txaranga bakarrik ateratzen baitzen Ostegun Gizenear. Eguna indarra hartzen hasi zen eta, 1984an, elkarteko norbaiti gaur egungo parodia sortzea bururatu zitzaion. Ideia indartzen eta sustraitzen joan da eta, gaur egun, txupinazo ofiziala gidatzen dute, udaletxetik; pregoia Jose Mari Amianoren ilobak irakurtzen du, gainera, Patxi Amianok. Gaur egungo Ostegun Gizeneko eztanda Kabi Alai sortutakoa da.

Urteotan guztietan, herriarren parte hartzea aldatu al da?

Canario: Festak iristear direla, jendea bero-bero egoten da herri guztietan. Ez dakit gu hasi aurretik festa nolakoa zen, baina, nik ezagutzen dudanez geroztik, plaza beti bete izan da.

Txarangek gaur egungo presentzia izaten zuten orduan?



Canario: Bai, bai. Tolosako inauterietan, txarangak izan dira, beti, erdigune nagusienetakoa. Ni 1968az geroztik etortzen naiz Tolosara, eta betidanik 6, 7, 8 txaranga kalean bueltaka ezagutu izan ditut. Geroztik berriak ere sortu dira; 20 bat elkartetako txarangak irtengo dira, igandetik asteartera.

Lehen, beharbada, txarangen musika izango zen inauterietako musika bakarra. Gaur egun, zein da txarangen lekua Tolosako inauterietan?

Canario: Egunez txarangek beren lekua mantentzen dute. Tolosan, jendeak ohitura handia du, eguerdian atera eta txarangei entzun eta begiratzeko. Zezenetako jaitsieran ere, jende asko mugitzen dute txarangek, eta Alde Zaharreko kale estuak oso egokiak dira txarangentzako. Beste kontu bat dira gauak; gauero txaranga profesional bat izaten da, eta bakarrarekin nahikoa da. Baina txarangek inauterietan osasun ederra dute; Gipuzkoan, egunean zehar txaranga gehien dituen herria izango da Tolosa.

Topi: Pentsatzen dut txarangen funtzioa aldatuz joan dela, baina, zezenetako igoera-jaitsieran, soka-muturrean edo dantzaldian, txarangek protagonismo berezia dute oraindik ere.

Nola sortu zen Incansables txaranga?

Canario: 1960ko hamarkadan, edo-zein festatarako, zortzi musikariko taldea nahi izaten zuten kuadrillek. Musikari bati deitu, eta hark beste zazpi lagun bilatzen zituen. Eta, horrela, aurrez ezagutzen ginen batzuk eta ezagutzen ez ginenak elkartzen

ginen. Bakoitzak zein abesti zekizkien esan, eta osatzen genuen jo beharrekoa. 1970ean, bost musikari elkartu ginen Ergobian (Astigarraga), abuztuko festetan: Jesus Mari Zalakain *Pipas* (bonbardinoa) eta Jose Francisco Esnaola *Patotxa* (tronboia) tolosarrak, Txomin Castro *Sietemesino* (trontpetea) billabonatarra, eta beste bi hernaniar, Felipe Sagarra *Zapa* (kaxa) eta ni neu (saxofoia). Bost egun pasatu genituen elkarrekin jotzen eta, laugarrenenerako, nahiko ondo ateratzen zitzaizkigun piezak. Halako batean, norbaitek esan zigun: «Zergatik ez zarete beti talde bera joaten herriz herri?». Eta, horrela, hurrengo udan taldean jarritza erabaki genuen. Hori bai, orduko pentsamondeari jarraiki, txango-txaranga zen hura: herrietara joan, ondo jan eta edan, ondo pasatu, eta sos batzuk etxera eraman.

Pixkana, ordea, gure lana hobetzen hasi ginen, eta beste trontpetea bat eta beste saxofoi bat ere hasi ziren, piezak bi ahotsetara jo ahal izateko. Jende gaztea gero eta prestatuago zetorren, eta horrek bestelako erreperitorio bat osatzeko aukera ematen zigun. Eta hor mantendu gara, 50 urtez.

50 urteotan, Incansables ezinbesteko bilakatu da hainbat herritan. Nola bizi dute txaranga leku horietan?

Josu Sanchez: Herri bakoitzak bere ohiturak eta abestiak ditu. Herri asko dira, eta guztietako ohituretatik ikasten dugu, haietara egokitzeke.

Topi: Txarangak harreman handiena Tolosa, Hernani, Leitza, Bergara, Arrasate, Bera eta Valtierraekin izan du azken urteotan eta urtero-urtero festetara joateak, lagundu egiten du txaranga herri horretan bertakotzen.

«Tolosako inauterietan, txarangak izan dira, beti, erdigune nagusienetakoa»

Gazteenek profesionalizatuta ezagutu dituzue txarangak, eta urte gehiago daramatzazuenek bidean ikusi duzue aldaketa.

Mirri: Lehen, Canariok esan duen moduan, kuadrillan elkartu, pieza batzuk jo eta ondo pasatzeko aitzakia ziren txarangak. Gero, ordea, profesionalizatzen joan diren heinean, errepertorioa bera ere zabaldu da, kalejira, fandango eta arin-arinetatik harago, rock-and-rollak edo swingak sartuz. Finean, gaur egunera egokitzen joan dira txarangak eta, Tolosan, horrek desberdintzen ditu egunean zeharreko txarangak edo gauekoak.

Josu Sanchez: Landuagoa da errepertorio hori, eta momentuan gehien entzuten diren melodiak moldatzen ere saiatzen gara.

Topi: Gaur egun bederatziko formatua da gurea, ia beti perkusioan hiru, tronboia, bonbardinoa, bi tronpeta, bi saxofoi eta, gehienetan, helkoia edo tuba. Ez dakit jotzeko molde hori Incansablesek ezarri ote zuen.

Canario: Nahi gabe izango zen, baina bederatziko taldea Incansablesetik atera zen. Edozein herritan ikus zenitzakeen hiru tronpeta, tronpeta bat edo klarinete bat. Guk bederatzirekin ekitea erabaki genuen eta, 1980ko hamarkadako txarangen gorakadatik, txaranga guztiak bederatzikoak izaten hasi ziren.

Txaranga kontzeptua erabili izan da mespretxuz. Gaur egun, jendeak musikari seriotzat zaituztela uste duzue?

Mirri: Batzuek bai, baina beste batzuek ez.

Josu Sanchez: Herri bakoitzeko kulturaren arabera da. Baina, orain, profesionalizazio horren ondorioz, ardura handiagoak eta bete beharreko ordutegiak ditugu, eta baita aurretik egin beharreko lana ere.

Mirri: Beharbada, jendeak ikusten ez duena da, lan handia dagoela kalean jotzen ari den txaranga horren atzean. «Hurrengo urtean zer kantu joko ditugu?», eta kantu horiek ez daude inon idatzita txarangarako. Idatzi egin behar dira eta, orain arte, urte askotan, Canariok egin ditu denak. Horrek Incansablesen izena zabaldu du, errepertorio propioa eta kantuak idazteko modu propioa sortu duelako. Jende gehienak txaranga honetatik hartu du oinarri hori guztia.

Topi: Egia esan, nik uste dut txaranga hitza oraindik ere mespretxuz erabiltzen dela.

Josu Sanchez: Bai, kalean geratzen den zerbait da, ez da banda bat, bere zuzendariarekin.

Topi: Baina, aldi berean, musikaz zerbait dakienak edo bellarri musikala duenak, argi eta garbi ikus dezake kalean musikari onak ari direla, eta moldaketa oso onak jotzen dituztela. Txaranga askok taula gainera igotzen diren talde batzuk baino hobeto egiten dituzte gauzak, baina, badirudi oholtzak beste maila bat ematen duela.

Erreferentzia izan zarete, eta gaur egun ere hala zarete. Karga eta ardura bat da?

Canario: Ikusten baldin baduzu txaranga askok zure errepertorioa hartzen dutela, zeure burua estutzen hasten zara; txangoak amaitu egin behar du, eta lan txukunak hasi.

Kontatu izan dut, 1994an Iruñeko La Alegria peñarekin jotzen hasi gi-

Antolinatxo edo La Clandestina

«Elkarteetako txarangek, errepertorio ofiziala mantentzen dute, inauterietakoa, eta hori ez dago gaizki, bestela abesti asko galdu egingo lirake. Baina, Tolosan oso itxiak izan dira zentzu horretan, azken aldian egoera aldatu den arren.

Udalak kontratatuta, Incansables moduan, Tolosan jotzen hasi ginen, gure errepertorioa jotzen hasi ginen; inauterietako gauzak jotzen genituen, baina mexikarrak, kunbiak eta dena delakoak ere bai. Bada habanera oso polit bat, Kabi Alai elkarteak diskarako duela bi urte grabatu genuena. Kantua betidanik ezagutzen genuen, eta behin batez jotzen hasi ginen, Leidor aretoaren atzean. Norbait gerturatu zitzaigun, hori ezin genuela jo esanez; ez zela inauterietako kantua, eta debekatu egin behar zela. Horrelakoetan zer gertatzen da? Nahikoa dela «hori ez» esatea, zuk behin eta berriz hori jotzeko; orduz geroztik, beti jotzen hasi ginen. Kantua, nolabait, debekatuta zegoenez, *La clandestina* izena jarri nion nik eta, ia 48 urtera, *Antolinatxo* izena duela jakin dut. Eta, orain zer, eta Tolosako kantu kuttunenetako bat da».

nenean, banuela beldurra. Neure buruari galdetzen nion: «Zein genero joko ote dute hemen?». Gure txaranga geldirik zegoenean, gainerakoak entzuten aritzen nintzen, bertako errepertorioa pixka bat ezagutzeko. Bada, entzun nituen txaranga guztiek, Incansablesen errepertorioa jotzen zuten. Horrenbestez, behartuta zaude gauzak ondo egitera; maila jakin bat ematera, gauzak ondo egitera.

Beste txarangak gutxietsi gabe, gazteenontzat, ohera al da Incansablesen jotzea?

Josu Sanchez: Bai. Beti ikusi izan dugu Tolosan eta, hemen aritzen ziren txarangen artean, beti nabarmendu izan dira. Bertan aritzeko aukera edukitakoan, txaranga on batean jotzeko aukera duzula pentsatzen duzu, noski. Bestelako doinuak ikasteko aukera eta, Canariok bezalako ibilbidea duten pertsonekin elkarbizitzeko.

Canario: Beraiek ez dute esan, baina nik esango dut. Arkatza asko erabili dut nik Incansablesen, errepertorioa sortuz. Baina orain bi arkatz berri ditugu txarangan, Mirri eta

Topi, eta ikaragarri idazten dute.

Topi: Nik uste dut bi aldetatik begiratu behar zaiola Incansablesen aritzeari. Musikaren ikuspegitik, aurrerapauso bat ematen duzu. Baina ikasteko lekua ere bada Incansables, eta ikasten duzu musikaz, eta ikasten duzu elkarbizitzaz, urte osoan zehar egun dezente pasatzen baititugu el-

«Jendeak ez du ikusten, lan handia dagoela kalean jotzen ari den txaranga horren atzean»

karrekin. Bizitzarako eta musikarako balio duen eskola da Incansables.

Txaranga zenbait belaunaldi aldaketa izan ditu. Nola bizi izan dituzue?

Canario: Hauek iritsi berriak dira [barreak]. Ni gazteena nintzen hasi nintzenean eta, 19 urterekin, hamahiru urte zaharragoa dena zure aitona iruditzen zaizu. Ondoren adintsukoekin aritu nintzen eta, gero, konturatu nintzen beste guztiak ni baino gazteagoak zirela. Gaur egun, txaranga mutil batek bere aita aurkeztu, eta aita ere ni baino gazteagoa dela ikusten dut. Gazteagoak etortzen dira, eta ideia berriak ekartzen dituzte, nahiz eta nik arkatzarekin jarraitu, eta beraiek ordenagailuz aritu. Jokora egokitzen joan beharra dago, baina niri jokoak gainezka egiten ari zait honezkero, eta aurrerantzean datorrena, ba, ez dakit... Baina, orain arte, ondo, oso ondo moldatu izan gara.

Termometrorik baduzue erreperitorioa aukeratzeko?

Mirri: Giroaren arabera, momentuan erabakitzen dugu zer jo. Ez da gauza bera edozein larunbat eguerditan jotzea edo kuadrilla eguneko eguerdian jotzea, giroa animatuago dagoenean. Herri bakoitzean ez dugu erreperitorio bera hurrenkera berean jotzen.

Josu Sanchez: Jende motari, adinari eta giroari begiratzten diogu.

Topi: Hainbeste urtetan herriz herri aritzeak ere ekartzen du horretan asmatzea. Gutako batzuk tolosarrak izanda, Tolosan jendea ezagutzen dugu, eta argiago izaten dugu guztia. Inguruan dantzariak ditugula ikusten badugu, Iruñean ez bezala, Tolosan fandangoa eta arin-arina joko ditugu, badakigulako pieza horiek arrakasta izango dutela.

Canario: Jendearekin harremanak egin behar dira herrietan, jende horrek esan baitiezazuke norbere herriko ohiturak zein diren. Pixkana, herri bakoitzari tamaina hartzen diozu.

**Tolosan, zein dira arrakasta handiena duten kan-
tuak?**

Canario: Tolosak badu erreperitorio finko bat: *Diana*; zazpigarrena deitzen zaiona edo *Praxkuarena*; hamalaugarrena edo *Iruñeta*; Inauterietako jota, nola ez; eta habanera ezagunenak, *Galtzaundi* eta horiek guztiak. Hori mantendu egiten da, beti. Gaueko emanaldiak bukatzerakoan, jarraian jotzen ditugu abesti horiek guztiak, *Dianarekin* amaituz. Zeren, Zaldunita egunean, banda *Diana* jotzen ateratzen denean, herri osoa han dago. Eta, bandako musikariei oiloipurdia jartzen zaie *Dianarekin*, eta korapilo bat eztarrian, tolosarrak horrelakoak baitira. Eta horrek jarraitu, eta jarraitu, eta jarraitu egiten du.

Josu Sanchez: Azken aldian, *Baila Negrarekin* gertatzen dena ere aipatzekoa da, oso-oso ezaguna egin baita. Eta *Kabilako kantua* ere leku guztietan dabil.

Topi: Nik esango nuke, *Baila Negra* dela gehien eskatzen dutenetakoa. Ez dakit lehen horrela ote zen.

Canario: Beti jo izan da, baina, Tolosan, ez dakit zein arrazoiengatik, izugarritzko indarra hartu du urte gutxian. Nahitaez jo beharrekoa da, ia-ia, eta ez baduzu jotzen...

Mirri: Ez baduzu jotzen, kantatzen hasten zaizkizu, jotzen has zaitezen.

Jendea oso gogaikarria al da zentzu horretan?

Josu Sanchez: Eramaten jakin behar da. Gainera etortzen baldin bazaizkigu, txantxa giroan aritzen saiatu eta horre-



Txaranga sortu zuten kideak, 1971an. ATARIA

kin jolastu behar izaten dugu. Baina, bai, «jo kantatu hau, jo, jo» esaten digutenean, azkenean jo egin behar izaten dugu askotan.

Topi: Txarrerako eta onerako, herri batzuetan lagunak ditugu, eta zenbaitetan gu zirikatzeke egoten diren arren, beste batzuetan lagundu egiten gaituzte. Badakigu herri guztietan tokatuko dela horrelako zerbait.

Iaz, Asteartita gauean, momentu magiko bat sortu zen inauteriak agurtzeko: hiruzpalau orduz jotzen aritu eta gero, etxerako bidea hartu zenuten, eta Aroztegieta kale osoa txaloka hasi zitzaizuen. Askotan gertatzen al zaizkizue horrelakoak?

Canario: Ez da ohikoena izaten, baina, herri batzuetan, festa amaierak izugarriak izaten dira. Tolosa da horietako bat, eta Hernani, Iruñea eta Valtierra ere bai. Gogoan dut, hemen, Tolosan, Astelenita batean, bukatu eta gero, gizon bat gerturatu zitzaigula, eta esan zigula: «Gaur, behintzat, soldata irabazia duzue». Tira, gustura entzuten diren gauzak dira, egia esan.

Topi: Guk ez dugu bizi izan, baina lehen, Shanti tabernan amaitzen zituzten inauteriak. Gaurkotik oso desberdina izango zen, Rondilla kale osoa jendez beteta.

Canario: Bai, ibilbidea egiten genuen, eta norbaiti bururatu zitzaion Shanti tabernako atean amaitzea, giro ona ego-



ten zelako. Rondilla lepo egoten zen. Arazo berriak sortzen dira, ordea, eta orain, Rondillan jotzen ari baldin bazara, bat-batean karroza bat azaltzen da. Guk ezin dugu, haizezko sei musika tresnarekin, haien aparatu eta bozgorailuen kontra aritu. Beharbada horregatik, Aroztegieta kale alde-
ra joaten hasi ginen.

Josu Sanchez: Zaila da. Jende asko egoten da, eta askoz ere hobeto moldatzen gara Alde Zaharreko kale estuetan, taberna atarietan. Eta, amaierako txalotze horiek ondo egindako lanaren sentsazioa ematen digute. Iaz Tolosan txalo artean amaitu genuen bezala, leku askotan ez digute etxera bueltatzen utzi izan. Elizondon, behin, furgonetatik jotzen bukatu genuen. Horrelako gauzak oxigeno moduko-
koa dira, aurrera jarraitzeko. Eskertzen dira.

Badira txarangari itsatsita egoten direnak, instrumentu bakoitzaren lana ondo begiratzuz. Jendea zorionsu egiten duzue.

Josu Sanchez: Askotan ardura sentiarazten dizu horrek, herri askotan musikariak izaten baitira gehien gerturatzen zaizkigunak; ondo edo gaizki ari zaren benetan estimatzen dakien jendea. Ezinbestean, horrek zuzenago mantenduarazten du bat, baina, aldi berean, eskertzekoa da gure lanari balioa ematea.

Canario: Batzuk dantzan aritzen dira, beste batzuek noiz-

behinka begiratzen dute eta, bat-batean, txoko batean hiru ikusten dituzu, eta beste batean bi, geldi-geldirik, txarangari begira. Segituan pentsatzen duzu, zure artean: «Hauek musikariak dira». Eta ez duzu hutsik egiten. Gazte asko egoten dira, baina, gero, ez dakit ikasten ote duten.

Inauteriak zer dira, lana ala plazera? Edo biak?

Denak: [Barreak]

Mirri: Biak, niretzat bai behintzat.

Josu Sanchez: Nahasketa bat da. Tolosar bezala, plazera da txarangarekin emanaldi horietan guztietan parte hartzea. Baina, aldi berean, lana da, eta zaindu egin beharra daukazu, hurrengo goizean ondo egon ahal izateko. Gaua korapilatzen baldin bada, goizak ere gogorrak izaten dira. Lanaren eta plazeraren batura dira inauteriak.

Mirri: Bai, beharbada egun batean euts diezaiokezu, baina sei egunetan ez. Hobe izaten da pixka bat zaintzea.

Denera, zenbat aldiz jotzen duzue Tolosako inauterietan?

Topi: Kalderero gauean hasten gara. Ostegun Gizenean, egunez Kabi Alai txarangarekin aritzen gara, eta iluntzean Aurrera elkartearen danborrada jotzen dugu. Gauez, Kabi Alai elkartearekin irteten gara, afalondoan. Ostiral Mehean, haurrentzako zezen festara joaten gara Kabi Alairekin, eta larunbatean ere Kabi Alairekin irteten gara egunez. Astelenitan gauez aritzen gara eta, azkenik, Asteartitan, Kabi Alairekin irteten gara egunez, eta gauez txarangako lehenengo kideak irteten dira. Inauterien hasiera eta bukaera egitea dagokigu.

Incansables izena, beraz, nekaezinena, ondo aukeratu zenuten.

Canario: Izena ez genuen guk aukeratu! 1970ean, Leitzako festetan, senar-emazte batzuk zeuden taberna batean. Emakumea gerturatu, eta txarangak nola izena zuen galdetu zigun. Erantzun genion orduantxe hasi ginela bostok elkartzen, eta ez genuela izen ofizialik. Eta, emakumeak erantzun: «Ba, aurrera jarraitzekoak baldin bazarete, eta izen bat behar baldin baduzue, Incansables jarri behar diozue. Nik ez dut antzeko ezer ikusi». Hauei askotan esan izan diet, lehenengo hamar urte haietan, ez genituela herriari kalitateagatik irabazi, kantitateagatik baizik. Onenak ginen, besterik ez zegoelako.

Bost hamarkada liburu batean

Urtemuga biribila eta haraino iristeko historia liburu batean bilduko du Incansables txarangak. Arkatza eta orria hartu ditu Joaquín Ortega Canariok, eta memorian gordetako bizipen eta pasadizo guztiak idatzi ditu, argitalpenerako.

Kontuek kantuak ere izango dituzte lagun, ordea, liburuari atxikiko dioten disko-bilduma batean. Txarangak 50 urteotan grabatutako zenbait kantu aukeratu dituzte, Incansablesen izaera doinuz ere deskribatzeko, eta udaberri aldean kaleratuko dute lana, ospakizun txiki batzuk lagun dituztela.



Aurten ere Urdina Txiki elkarteak antolatuko du, kaldereroen etorrerako desfilea; Plaza Zaharretik irtengo dira. I. GARCIA LANDA

KALDEREROAK, EDO INAUTERIEIEN XANPAIN KOPA

Jaietan jaienetara sartzeko atea da kalderero eguna, Tolosan, baina asko dira ate hori zeharkatu ahal izateko moduak. Zartagina joz, begira, mozorrotu gabe edo txarangan saltoka, ederra da festaren lehen txinparta.

Itzea Urkizu Arsuaga

Itzaleko Ostegun Gizona da, askorentzat, kalderero eguna. Astetan eta astetan eutsitako euforiari irte-ten uzten dion inbutua. Xanpain kopa bateko aparra nola, halaxe igotzen da inauterizalearen adrenalina, kalderero iluntze-gauean, eta burbuilek uz-

ten dutenaren parekoa izan ohi da kalderero egunaren ajea ere. Parranda eskuetan lehertzen zaio, bati baino gehiago.

Tolosarentzat, kaldereroak aitzakia bikaina izan dira Hungaria mapan kokatzeko, edo, nola-hala jakiteko, antzina, Europako ekialdean, ijitoek pertzak konpontzen zituztela. Dena den, kultu-

ra orokorreko galdera pareari erantzuteko baino balio ez duen informazio horrez gain, kaldereroek asko esan nahi dute Tolosako inauterietan: kalderero eguna da, betiko eszena eta irudiak betiko jendearekin errepikatzen diren gau horietako bat; edo, urteko egun gozagarrienetakoak hanka onarekin edo herrenka hasteko aukera. Finean, kalderero eguna izan daiteke jarrera bat bizitzaren aurrean: zartagina jo, edo begira egon?

'Kriseilula', 'pikopertza'

Inauterizaleak txiki-txikitatit itsasten du, bere egutegi biologikoan, Ostegun Gizeneko txistorrarenaren aurretik badela festa usaintzen hasteko beste egun bat. Egia da: ikasgeletan askoz ere lehenago hartzen diote aurrea egutegiari, mozorroak esku-lanekin sortuz, eta jolas orduetan kantuen hitzak buruz ikasiz. Bada kaldereroetako abestiaren letra hungarierazkoa dela urtetan pentsatu izan duenik ere, *kriseilula* eta *pikopertza* gogotsu kantatuz.

Kantuan pasatzeko moduko eguna baita, kaldereroena, haurren begie-

tan. Haurtzarora aspaldi atzean utzi zutenek gogoan izango dituzte Beotibar pilotalekuko gozoki poltsak, eta Xisto, Pisto eta Txibisto pailazoez oholtzara proba xelebreak egitera igorazten zituzten gurasoak. Orduan, kalean zintzilika izaten ziren, Aiz-Orratz elkarteak banatutako paper handien gainean norberak egindako marrazkiak. Orain, erraldoiekin kalejirari joaten dira haurrak, Aiz-Orratzen Leidorreko ikuskizunera.

Baina, orduan bezala orain, iristen da larunbat iluntzea, eta inauterizale bilaka litekeen haurra irteten da kaldereroen desfilea; ikustera edo parte hartzera. Eta, akaso bizitzan lehenengo aldiz, konturatzen da festetan beldurra senti daitekeela, buruhandiez aparteko beste izakiren batekin: hartzarekin. Horixe dira zartagina eta mailua: bizitzaren krudela, kolpeka-kolpeka.

Voyeurraren zoriona

Izan daitezke lotsatiak, baina, aldi berean, saltsa guztien berri izan nahi dutenak. Tolosako inauteriak ostegunean hasten direla sutsuki defendatzen dutenak, edo, urte guztiko rol serioatik ateratzeko, Zaldunita, Astelenita eta Asteartita bakarrik baliatzen dituztenak. Ohitura zaleak inauterizale baino gehiago; Olentzero, errege mago, San Joan egun eta kalderero desfileak leku berberetik ikustea maite duten tolosarrak.

Inauterien voyeurrak festaren bihotzean ez egonagatik, zentzu osoa ematen diote kaldereroen desfileari; barruan doazen askoren gozamena ere haiek sortzen dute, hein batean. Baita

argazkilariena ere: voyeurrek betetzen dituzte kale ertzak. Voyeurrak dira inauteri kaotikoaren hezur-haragizko enkoadrea.

Egun batez ijito

Larunbatek agenda propioa dute tolosarren bizitzetan, eta gehienek hurrenkera eta ordutegi berean egin ohi dituzte *larunbatkeriak*: kafetegian gosaldia, azokara joan, kirol pixkat bat egin, pare bat trago hartu, txipiekin mokadutxoa egin, bazkaldu eta siesta gozoan murgildu, adibidez.

Kaldereroek zerbait onik baldin badute, horixe baita: beti larunbatekin iristen direla. Eta, beraz, larunbatei dagozkien egitekoak larunbatean egin behar direla, kalderero eguna izanda ere. Garrantzi gutxiko datua da hori kalderero zale amorratuentzat, asterokoa egiten baitute, Europa ekialdeko ijitoz atonduta ere. Goizean goizetik gona, txanpon, kapela, txaleko eta zartagina-ekin kalera irteten direnak dira, bai.

Horieta askorentzat, inauterietako egunik onena da kaldereroena; nahiz eta, gero, ostegunetik astearterako bidaia bonuan, txartel guztiak xahutu. Irudi lezake aurreko taldekoen antipodetan daudela, baina, egiazki, batzuek ezin dute inauteria bizi, besteen presentziarik gabe: elkarren dekoratu dira.

Itxuraldatu bai, baina parrandarako

Inauteri alaiaren iragarle izatea nahikoa motibo da, kalderero gaua parranda ahaztezin horietakoa izango dela pentsatzeko; eta askok nahikoa eta sobran dute hori, bizitza ospatzeko. Horri gehituz gero, kalderero egunean ez dela be-

harrezkoa zer jantzi eta zer zerekin konbinatu pentsatzea, aurreikuspenak perfektu bilaka daitezke.

Kaldereroetakoa baita urteko lehen parranda itxuraldatua, eta askok horrela bizi dute buhame hungariarren etorrera. Mozorroaren azpiko kapa kopurua kalkulatzeko hasteko gaua da. Soinean daramazun jantzia amaren gaztetako gonarekin eta aitonaren garbarako trapuekin osatu duzula, beste behin, lagunei kontatzen diezun iluntze hori. «Hurrengo urterako txanponak ondo josi behar ditut» enegarrenez zeure buruari errepikatzen diozunekoa.

Adi, ordea, alde batago mozorrotzetik mozorrotzera: gaupasa egiteko ijito jantzian sartzen direneta hainbatek polit egotea lehenesten dute, eta, aldiz, bikain itxuraldatzeko egiten dituzte eginahalak, beste askok.

Txaranga, eta kito

Ia ziurtasun osoz baieztatu liteke, zartagina jotzearen eta begira egotearen arteko bizi-filosofia guztiek bat egiten dutela, kalderero gauean, ordu jakin batetik aurrera. Ogi tartean egin beharreko afarien denboraldia kalderero gauean zabalitzen dute batzuek eta, beste askok, bi hilabete lehenago erreserbatutako mahaiaren bueltan osatzen dute oturuntza, egunak merezi duela sinetsita.

Txaranga doinuek betetzen dute Alde Zaharra eta, bat-batean, urtebete zahartu izanaren poza pizten da zenbait bihotz inauterizalean. Jaia halako erromantizismotik bizi ez dutenak ere batzen dira, ordea, goizaldeko hitzordura, kalea lapiko bilakatuz: inauterizaleak, goierritar exodora, inauteriak sentitzen ez dituzten tolosarrak eta eskualdeko beste 27 herrietako parranda zaleak, guztiak saltsa berean.

Euskal Herria plazako arkupean baliatzen hasten den unea izaten da hori. Etxetik beti bezala irteten, eta pare bat hortz beltzez margotuta itzultzeko arriskuaz jabetzeko momentua, edo eremu publikoan kantatzeari lotsa –eta ahotsa– galtzen hasteko aukera.

Kalderero gauak lehertzen du inauterietako xanpain botilaren kortxoa, tolosarrei, astebete pasatxoan, apar gainean bizitzeko eskua luzatuz. Biharamunak biharamun, gehienek aukerari heltzen diote, eta badira igande eguerdiko pregoi kontzerturako hitzordua egiten dutenak ere, ostegunera bitarte olatu gainean jarraitzeko.



Aiz-Orratzen haur jaialdia ere kalderero egunez izaten da, Tolosan. J. ARTUTXA DORRONSORO



R.ZABALA

SINCE MORE THAN 200 YEARS

GARAGARTZA BASERRIA
20150 ADUNA. GIPUZKOA,
BASQUE COUNTRY, SPAIN

INFO@RZABALA.COM

PHONE NUMBER
0034 943 69 07 74

WWW.RZABALA.COM

**EGUNERO IREKITA
IGANDE GAUAK
IZAN EZIK**

**OSTIRALA,
LARUNBATA ETA
IGANDE EGUERDITAN
IREKITA**




**PROUDLY
MADE IN
EUROPE**



**2 eta 3 logelako etxebizitzak garaje eta trastelekuak terraza
zabal eta eguzkitsuak ikuspegi paregabeak mendietara
zatoz eta erreserbatu zure gustuko pisual!**



ANOETA – 28 ETXEBIZITZA



Urtero Plaza Berrian elkartzen dira pintxanatarak, Ostegun Gizenari hasiera emateko. ATARIA

UMORE ONEZ, HEGAN EGITEN JARRAI DEZAN

Tolosako Pintxana txarangak, zortzi hamarkada beteko ditu, Tolosako Inauterietako Ostegun Gizenan lehen aldiz atera zenetik. Urtero berritzen doan arren, bertako kideek «berezia» dela diote, zentzu guztietan.

Josu Artutxa Dorronsoro

Hilabete batzuk besterik ez ziren pasa Gerra Zibila amaitu, eta frankistek aginte makila hartu zutela. Tolosan, ordea, inauterietarako grina, indarra eta ilusioa ez ziren itzali. Hamarkada berri bati ekitera zihoa zen, eta baita inauteri berri batzuei ere. Ez ziren betiko garai onenak, baina satira, parodia eta umorea barrenean zeramatzaten izaki hutsak ziren. Horrela, 1940ko Ostegun Gizen egunean, Arostegieta kaleko 13. zenbaki inguruan kokatzen zen Etxe Haundi sagardotegian harakin eta lagun kuadrilla bat bildu zen. Eguneako festa bultzatzea zen haien asmoa, eta hala, udaleko ordezkariak, arratsaldean zentxo bat askatzea eskatu zieten. Udalak, ordea, ezezkua eman zien.

Erantzun horren aurrean, Ostegun Gizen guztietan txarangarekin ateratzea erabaki zuten, helburua lortu arte.

Azkenean, zezenak askatzea lortu zuten, baina kuadrilla horrek bultzatutako ideia, soinu ateratzearena, bere horretan mantendu zen. Galtzekorik gabe zeuden. Inauterietan kaleak alaitzen jarraitu zuten, txarangarekin, eta gaur egun ere, horretan dihardu Pintxanak. Hain justu, Pintxana, pinzana edo mendi-pintxana, Euskal Herrian ezaguna den txori bat da, luma arre argikoa, hegal beltzekoa eta bularralde gorrikoa. Horregatik, hegatiaren irudia daramate txarangako ikurrean, maskota gisa.

Jon Alonso eta Izarne Iglesias inauterizaleak, urteak daramatzate Pintxana txaranga ateratzen, eta «zerbait berezia dela» nabarmentzen dute biek. Alonso 2010ean atera zen lehen

aldiz Pintxanan. «Lagun talde batekin hasi nintzen, lehenik klarinetearekin, eta geroago, saxofoiarekin. Erraza zela, eta giro ona izaten zela aipatu zidaten, eta beraz, ez nuen zalantzarik izan». Iglesias, berriz, hiru urterekin atera zen lehen aldiz, kantinera modura. «Gurasoak ere txaranga ateratzen ziren, eta beraz, beraiek animatu ninduten. Ordutik aurrera, urtero atera izan naiz, lehenik, bonboa eta txindatak jotzen, haur gehiagorekin batera; ondoren, eta gaur egun, rekintoa jotzen ateratzen naiz». Ostegun Gizenarako planik onena dela diote biek.

Inauteriak, Ostegun Gizona, txaranga eta lagunak. Guztiak biltzen ditu Pintxanak. Txaranga bera beste modu batera bizitzen dela aitortzen dute. «Lagun multzo berri bat egiten lagun-tzen du. Askorentzat, gainera, lehen pausua izaten da txaranga batean. Behin hasiz gero, oso zaila da uztea», dio Alonsok. Iglesiasek gogorarazten du, ez dutela mugarik jartzen musikarientzat, ez adinean, ezta mailari dagokionez ere. «Bi kanta bakarrik jakinda ere, ez diogu inori ezer esaten. Hala ere, aitortu beharra dago, azken urteetan, perkusio jotzaile gehiegi izan ditugula, eta beraz, txaranga bat baino gehiago, batukada dirudiela. Hori ekiditen saiatzen gara».

Zuzendari aldaketaren xarma

Orain, mugarik ez, baina hasiera hartan, sagardotegian biltzen ziren gizonetakoak soilik ziren Pintxanaren parte. Txaranga sortu zuten kideen artean, tolosar ezagun asko zeuden. Besteak beste, Periko de Pedro, Antxon de Pedro, Ceferino Rico, Miguel Martinez, Simon Martinez eta Joxe Mari Arostegi. Periko de Pedro, *Periko el charcutero* ezizenez ezagunagoa, izan zen lehen zuzendaria, eta ondoren, haren seme Antxonek hartu zuen lekukoa. Antxonek, berriz, bere alaba Maria Eugeniari eman zion erreleboa. 2008ra bitarte, urte luzez, Xabier Ugarte *Goterak* inauterizalea izan zen zuzendaria. Urte horretan, ordea, azken aldiz zuzendu zuen txaranga, apirilean zendu baitzen. Urte berean, Tolosako Ttontor Elkarteak, *Goterak* izeneko kantua sortu zuen, bere omenez. 2009ko Ostegun Gizenan omenaldia egin zitzaion, eta hortik aurrera, kantu hori jotzen dute Pintxanakoek, Ostegun Gizen guztietan.

Ordutik aurrera, Pintxana txarangako zuzendaritza batzordeak, urtero, zuzendari desberdin bat izan zezala erabaki zuen. Azken urteetan beraz, dozena bat kide igaro dira lagunaren artean jotzen aritzetik, txaranga bera zuzentzera. Aurten, Joxe Mari Martinek zuzenduko du. «Pintxanaren esentzia oso ondo irudikatzen duen pertsona bat izaten da», dio Alonsok. «Xarma berezi bat ematen dio horrek txarangari, ikuspuntu erabat desberdina ematen dizulako», aipatzen du Iglesiasek. Duela bost urte, bera izan zen zuzendari. «Urte berezia izan zen niretzat, 75. urteurrena ere bazelako».

2017an, berriz, urte luzez Pintxanako partaide izandako beste inauterizale bat zendu zen: Santi Balza. Berari ere, doinu bat eskaini zioten Mirari Martin eta Ivan Arostegi txarangako kideek. Kasu honetan, habanera bat. 2018ko Ostegun Gizenean, omenaldi berezia egin zioten Balzari eta bere familiari, Plaza Berrian, eta bere omenez sortutako pieza jo zuen txarangak.

«Aipatutako omenaldiak oso hunkigarriak izan ziren, familiarekin harreman handia dudalako», aitortzen du Iglesiasek. Horiek izan dira, berarentzat, inauterietan bizi izan dituen une berezienetakoak. Hala ere, Ostegun Gizenaren barruan, momentu bat aukeratzekotan, egunaren amaieran, Berdura Plazan bizitzen dena aukeratzeko. «Pintxana kantua azken aldiz jotzen duguneko unea, zuzendari berriaren izendatzea, eta bertan ateratzen dugun taldeko argazkiaren momentuak. Alonsok, berriz, zezen-festa amaitu ondoren, plazatik Alde Zaharrra egiten duten kalejira edo jaitsiera aukeratzeko. «Hasierako urduritasun hori amaitzen da, eta guztiok saltsan sartuta egoten gara».

Batzuen ilusioa besteengan

XIX. mendearen erdialdera, inauterietan ez zen diru laguntzarik izaten, eta zigortuta zegoen ordu jakin batetik aurrera musika jotzea. Hori dela eta, Pintxana txarangakoek, txapela pasatzen zuten inauterizale eta tabernariaren artean, isuna ordaintzeko dirua biltzeko. «Zailtasun eta eragozpen handiak izan zituzten txarangako kideek, eta horiei aurre egin zieten ikustea, eta gaur egun, bizirik mantentzen dela jakiteak, poz handia ematen du», dio Iglesiasek. Urteak joan, urteak etorri,



Harakin eta lagun kuadrilla batek, zezenak askatzeko protesta modura atera zuen lehen aldiz, Pintxana txaranga

Egun, belaunaldiz belaunaldi indarberritzen eta hazten joan den multzo gaztea da. Guztira, 150 musikari ateratzen dira

sortzaileak Pintxana uzten joan dira; txarangak ordean, ez du galdu Ostegun Gizona doinu alaitzeko poztasuna, ezta izpiritu inauterizalea ere.

Gaur egun, oro har, musikari multzo gaztea da, belaunaldiz belaunaldi indarberritzen joan dena. Indarberritzen eta handitzen. Izan ere, guztira 150 musikari inguru ateratzen dira orain. «Askok, lanean jai eskatzen dute, bertan ateratzeko». Horietako gehienak, gainera, haurrak izaten dira. «Ilusio handiarekin ateratzen direla ikusten duzu, nahiz eta hasieran, askoren aurpegietan urduritasuna nabari den. Zezen plazara sartzeak ere zirrara handia sentiarazten die. Hala ere, aurpegian atzematen zaien alaitasuna, ezin izaten da diruz ordaindu», azaltzen du Iglesiasek. Alonsok, berriz, askorentzat txaranga batean has-tea oso zaila izaten dela gogorarazten du. «Pintxanak lehen aldiz esperientzia hori bizitzeko aukera, eta askok ematen ez duten segurtasun sentsazio hori ematen dizkizu».

150 musikariko kuadrilla antolatzen, dozena bat lagun aritzen dira la-

nean. Dozena bat lagun inguru aritzen gara lanean. Inauteriak hasi baino aste batzuk lehenago elkartzeko, afari bat egin, eta urte horretako lanez hitz egiteko. «Esperientzia handia dugu, eta jakitun gara zeintzuk diren puntu kritikoak. Horiek zaintzea egokitzen zaigu guri», aipatzen du Alonsok. «Egunean bertan, lantaldean ez dauden gazte askok ere, bere burua eskaintzen dute laguntzeko, eta hori eskertzekoa da», gehitzen du Iglesiasek. Pintxana txarangak beste hainbeste urte beteko dituen ala ez galdetuta, bi musikariek ez dute zalantzarik: «Lagun arteko giro bikaina dugu. Hori ez da galdu, eta ez da galduko».

‘Pintxana’ kantuen letra

**Pin, Pin, Pintxanatarrak gu gera
Pin, Pin, Pintxanatarrak beti.**

**Umore ona pasatzen degu
beti sagardotegian,
gu bezelakorikan ez baita
Tolosako herrian. (bis)**

**Pin, Pin, Pintxanatarrak gu gera
Pin, Pin, Pintxanatarrak beti.**

**Neska gaztiak ez lotsik euki
guregana etortzeko,
Pintxanatarrak beti zai gaude
zuekin dantzatzeko. (bis)**

**Pin, Pin, Pintxanatarrak gu gera
Pin, Pin, Pintxanatarrak beti.**

ZILARREZKO EZTEIAK, DANBOR HOTSEZ

Mende laurdena beteko da, Berazubiko Danborrada, Zaldunita Bezperako Helduen Danborradarekin batera, lehen aldiz atera zela. Parte hartze handia espero dute, eta urteurrenerako, zapi bereziak jantziko dituzte.

Josu Artutxa Dorronsoro

Agian, inauteriek ezagutu duten sasoirik onenean izan zen. Jai giroari, parte hartzeari eta errespetuari dagokionez, 90eko hamarkada, garai historikoa izan zen Tolosako Inauterientzat. 1995ean, gainera, ordura arte Tolosako zenbait elkarteek parte hartzen zuten Helduen Danborradara, talde berri bat gehitu zen, Berazubiko Danborrada. Aurten, 25 urte beteko dira, lehen aldiz parte hartu zutela. Hastapeneko urteetan, Juventud Mixta elkarteak antolatuta hasi ziren, baina ofizialtasunik gabe, berezko ospakizunetik kanpo; Helduen Danborradak egiten zuen ibilbide bera egiten zuten, baina horien aurretik. «Guretzako ez zegoen tokirik; orduan, gure danborrada partikularra egitea pentsatu genuen. Gerora, udaletxeak, ba-

teratzea erabaki zuen, eta ondorioz, gaur egun, Helduen Danborradako partaideekin batera osatzen dugu ibilbidea. Ingeles Goardiakoak ere egoera berean zeuden, baina haiek ofizialarekin osatzen zuten ibilbidea», adierazi dute Berazubiko auzotarrek.

Ederki asko oroitzen dituzte hasierako urte haiek. «Lehen urtean, 45 danbor jotzaile izan ginen, eta hirugarren urtean, kanoia atera genuen, batzuek danborra jotzea ez zutelako gustuko». Oraindik ere kanoiarekin ateratzen dira. «Zerbait ikusgarria, gustagarria eta umoretsua egitea zen helburua». Gaur egun, kanoilariak garraiatzen dute, baina urte desberdinetan, bi idik, ahuntz batek eta mando batek ere garraiatu zuten. «Lehen, konfetiak, gozokiak eta haurrentzako zenbait opari izaten zituen lehergailua jaurtitzen zen. Garestia zen, ordea, eta urteren batean, susto txikiren bat ere

izan genuen, izu handia eragiten baitzuen. Hori dela eta, hots gutxiago ateratzen duten petardoak jaurtitzera igaro ginen». Behin anekdotak oroitzen hasita, arrautzak eta loreontziak bota zizkietela ere gogoratzen dute.

Kanoilariak, ordea, ez ziren danbor jotzaileez gain ateratzen ziren pertsonaia bakarrak. Bi kantinera ere ateratzen ziren. «Bat emakumezkoa zen, eta bestea, gizonezkoa, Berasibiakoa eta Berazubikoa». Oraindik, gordeta dituzte kantinerek astintzen zituzten banderak. «Hasierako urteetan, Berazubi Elkarteari esker sortu zen danborrada. Nahitaezkoa zen elkarte baten izena izatea, eta beraz, horretan lagundu zuten. Horregatik, bi banderak ateratzen ziren».

Danbor jotzaileez gain, kanoilariak ere izaten dira. Hauen helburua, umorez, zerbait gustagarria egitea da.

Nekez atzeman daiteke belaunaldi aldaketa bat, danborradan. «Gaztetxoek ere aukera izan behar dute»

«Lehen zuen xarma galdu du»

Berazubiko Danborrada, baina, ez da Zaldunita Bezpera egunez soilik kale-ratzen. Auzoko festetan ere izaten da, tradizio handiko ekingiza baita. Inauterietako danborradari dagokionez, betidanik, partaideen gehiengoa auzoko bizilaguna izan da. Hala ere, inoiz ez da derrigorrez bete beharreko baldintza bat izan. Tolosako, eskualdeko nahiz Gipuzkoako beste herrietako jendeak ere parte hartu izan du bertan. «Lehen urtean, 45 inguru izan ginen, baina kopurua jaisten joan da. Iaz 25 atera ginen. Bestalde, aurten deialdi berezi bat egin dugu, urteurrenagatik, eta 42 danbor jotzaile izango gara». Lehenago ere jo izan zutenak aterako dira aurten, baita herriko jende gehiago ere. Gainera, oraindik danborrada askotan ohikoa ez bada ere, Berazubikoa parekidea da, eta gaur egun, gizonezkoak baino emakumezko gehiago izaten dira danborra jotzen ateratzen direnak.

«Orokorrean, Helduen Danborradaren izaera erabat aldatu da». Horrela aitortzen dute Berazubikoek, eta azken urteetan izan duen parte hartzea kontuan izanda, aitortu behar da,



Gaur egun, Berazubiko Danborradak, Plaza Zaharrean egiten du bat Helduen Danborradarekin. M.I.

hainbat faktorerengatik gainbehera doan ekintza dela Tolosako Inauterien barruan. «Lehen gauzez izaten zen, eta berandu amaitzen zen. Gainera, hurrengo egunean karrozan edota Dianan parte hartu nahi zuten herritar askok, utzi egin zuten. Funtzionatzen ez zuela ikusita, orduz aldatzea erabaki zuten, eta orain, Haur Danborrada amaitu eta ordu eskasera hasten da. «Ordutegi aldatetarekin gutxi ez, eta kantineraren irudia desagertu egin zen, baita erreginarena ere. Horrek morbo berezia ematen zion, moztortuta zein aterako zen jakitearen xarma. Herritar guztiak hori ikusteko ateratzen ziren, baina kendu zutenetik, askok, danborradaz gozatzeko zuten ilusio txiki hori galdu zuten». Berazubikoak, ordea, jakitun dira tolosar gehienek, danborrada ez dutela gustuko. «Ez da Donostian bezala gertatzen, han egun berezia baita».

Azken urteetan, nekez atzeman daiteke belaunaldi aldaketa bat Helduen Danborradan. Berazubikoak ere antzeko egoeran daude. Hauek, ordea, gaztetxoek parte hartu ezin izana salatzzen dute. «18 urtetik gorakoek soilik jo dezakete danborra. Haurren Danborradan, berriz, 12 urte bitarteko haurrak ateratzen dira. Hain justu, beharrezkoa da 12-18 urte bitarteko gaztetxoek danborradan parte hartzeko aukera ematea, edo danborrada bat amaitu eta bestea hasi bitartean, beraien ere partaide sentitzeko ekintza bat egitea. Helduleku bat aurkitu behar da. Garai bateko erreginarena eta damen karroza berreskuratu, danborrada osatzeko pertsonaia eta elementu gehiago sartu, edo zuzenean, herritarrei galdetzea, ea danborradari zer falta zaion azaldu dezaten... Urtero horretan saiatzen gara, baina ez dugu asmatzen».



Berazubiko Danborradako zuzendaritzako kideak, 25. urteurrenako bandera bereziekin. J. ARTUTXA

Urteurren berezirako zapiak

Aurtengoa, urte garrantzitsua izango da Berazubikoentzat. Ez urteurrenagatik soilik. Garai bateko parte hartze handien zifra gainditu dutelako. 45 danbor jotzailetik gora izango dira, eta tartean, hiruzpalau gaztetxo izango dira. «Partaide asko gaudenez, agian, herritarrei egiten duguna gustatzen zaie, eta askori, datozen urteetarako ilusioa pizten zaie». Gustuko baduzu, etxean ikusten duzulako da, txikitatik danborradan atera zarelako. Gure kasuan, gainera, auzoko festetan ere atera izan gara, eta horrek eragina du.

«Jantziak, danbor berriak, makilak, txapelak... gastuak handiak izaten dira, eta nahiz eta udaletxearen partetik diru laguntza bat jaso, ez da nahikoa izaten, eta guk geuk zati handi bat ordaindu behar izaten dugu». Aurtan aterako diren kide berrientzat ere, jantzi eta txapela berriak egin behar izan dituzte. Baina, ez dira berritasun bakarrak izango. Izan ere, 25. urteurrenarako zapi bereziak atera dituzte, eta horiek jantzita ariko dira danborra jotzen, Tolosako kaleetan».

Jantziak eta txapelak, baina, ez dituzte urte batetik bestera egin, ezta nola hala ere. «Urteetan, lan handia egin zuten auzotar batzuek. Txapelak egiteak sekulako lana eta kostua suposatzen zuen, eta Marilu Aizpun aritu zen horretan. Lanak asko erraztu zizkigun, batez ere, hurrengo urteetan, jantzi berriak egiterakoan. Beraz, eskerrak eman nahi dizkiegu denei. Udaletxeari eta Frascuelo elkarteari ere eskerrak eman beharrean gara. Izan ere, zeren plazan egiten ditugu entseguak, eta bertan gordetzen dugu danborradarako material guztia».

Martxoak 10erako txerriak prest 5kg 55€ / 3kg 40€

Baserri txiki bateko haragia zure etxeraino

Mimoz hazitako txerri, txekor eta oilaskoak

ARGALIA GOENA

BASERRIA HERRIAREN OINARRIA

agarmendia87@hotmail.com | 650 662 035 | Amezket



Adibidez, «Franco beraren izpiritu berraregitua da topatuko duguna...». JON MIRANDA

18

INAUTERIEN INGURUKO HAUSNARKETA XUME BAT

edo bere izaera
interpretatzeko apunte batzuk

Fernando Rojo

Hi, eguarrik pasa ditun, e! Hasi beharko dinagu inauterietako zerbait pentsatzen, ez?

-Hori dun, hori, ze mozzorro aterako dinagu aurten?

-Jo! Ba ni aurten hutsean nagon, batiere ideiarik ez.

-Aurten, gainera, oso goiztiarrak ditun, ez zeukanagu denbora askorik.

-Eta hik zer diok? Idearik bai, ala?

-Ke ba, ke ba, neu re aurten nahiko off-ean harrapatu zidaten.

-Ba, zer moduz hurrengo astean afari-bilera bat egiten badiagu elkarteetan gaiari buelta batzuk emateko?

-Bai, halaxe beharko du izan, legeak agindu bezala.

-Ados, baina afarirako patrika bete ideiak, e!

Asmatutako elkarriketa bat izan arren, seguruenik Tolosako kuadrilla asko identifikatuta sentituko dira horko esaldi batzuekin. Badira uda ostean la-

nean martxan jartzen direnak. Batzuk. Beste batzuk gabonak eta gero jarriko dira urteari amaiera ematen dioten sei egun handiak prestatzen, tolosarron egutegia Hauster Egunean hasi eta azken egun apoteosiko horiekin bukatzen baita. Hori delako inauteri jaia tolosar askorentzat, urtea borobiltzen duen *apotheosis* bat. Urte guztiko elkarriketetan zeharka edo zuzen hitz egingo dugu inauterietako ideiez, «hori egin dezakegu inauterietan...», baina gehienok aste gutxi falta direla jarriko ditugu pilak zerbait antolatzekotan. Halere, azkenean beti dena ondo ateratzen da.

Zer funtzio dute inauteriek, baina, tolosarron baita? Tolosakoa tolosar bihurtzen duen festa da, komunitate baten izatea zeratzen duena. Dena den, txarangak, sokamuturrak, alborada eta egitarau ofizialeko gainontzeko protokoloek gain, bi elementu nagusi behar dute inauteriek benetako inauteriak izateko: jendartean dauden balio nagusien alderantzizkatzea (edo inbertsioa), ordena hankaz gora jartzea, aurrena; eta gure izaeraren kanporatzea, urte osoan gure baitan, itzalean gordeta ditugun pasio, emozio eta tabuak azaleratzea (itzalak argitzea, alegia), bigarrena. René Guenon, erlijioen adituak esan zuen: «Inauteriak menderatu edo erreprimitutako senen ihes-balbula bat dira». Zirkuntantzia zehatz batean eta egun gutxiko tartea aprobetxatuz, barne tendentzia horiek nolabait kanalizatu eta urtean zehar presio sozialak (edo norberaren barne presioak?) «debeakutzen» digun guztia egingo dugu inauterietan.

Modu erlijioso batean beteko ditugu inauterietako erritualak: zeremonia-tsu batzuk, apoteosiko beste batzuk. Ordena eta kaosa dira. Bi errealitate horiek presente dira Ostegun Gizenetik Asteartita amaitu artean. Kaosa, kasuak kasu, Hauster Eguna arte luzatuko da tolosar batzuentzat, garizumaren denbora sakratua hautsiz. Ordenaren hauste hau, azken hamarkadetako gizartearen laizizazio prozesu baten ondotik gaur egun posible dena, pentsaezina izango litzateke beste garai batean, noiz inauteriak elizaren kontrolpeko jaiak baitziren.

Inauteriak tolosar egutegi *liturgikoren* sei egun gorenak dira. Mundu laiko batean bizi gara. Gero eta paganoago, herejeago, ateogao edo agnostikogao batean bizi gara. Hitzez baina.

Jendarteko eztabaida edo elkarrizketan eliza kritikatzan da; erlijioak orohar. Baina gero modu erlijioso batean joango gara kirol aretoetara (futbol zelaiak, kiroldegia, korrika egiteko pista...) bere araudi, liturgia eta jaingo (irakur idolo edo *eidolon*) guztiekin. Inauteriak ere modu bertsuan, zorrotz eta erlijioso ospatuko ditugu. Bere liturgia guztiekin. Erritual eta zereemonia guztiekin. Ez al dira, ba, sakratuak tolosar askorentzat? Erlijio hitzak latinezko *religare* hitzean du jatorria eta «(zerbaiti) zorrotz lotzea» esan nahi du. Ez al gaude tolosarrak ere *tempo* sakratu honi estu atxekirik? Hortxe eztabaidarako gaia.

FESTA, KATARSIA, JOLASA ETA MASKARADA

Festa, gauza guztien gainetik, dibertsioa da, doako ondo pasatzea. Eguneroko errutinatik ihes egin, arazo oro eta norbere bizitzan ditugun ohiko gatazkak alboratuz, aldi baterako talde-katarsian barneratzea. Gizakiak gizakia izateagatik behar duen *tempo* bat da festa. Bai ala bai. Gurean batipat inauteriek beteko dute rol hau: trazu zaharrez hornituta, arropa distiratsuz edo zaharkituz jantzita, maskara, kapela eta pinturek moztortutako jende-bilerak (kuadrilla, familia edo elkarte) ibiliko dira kaleetan festak islatzen duen alaitasun hori erakusten. Norbera berean. Ahaztuta bezperan izandako lan gatazka edo munduan dauden arazo larri guztiak, behintzat, egun batez bizitza eta lagunez gozatzea tokatzen da. Katartikoa da guztiz, grekerako *khátharsis* hitzak «garbiketa» esan nahi baitu, eta inauteriek funtzio hori ere betetzen dute, emozio-

gorputz-, izpiritu- eta buru-garbiketarena. Bizitzaren egunerokotasunak kutsatutakoaren purifikazioa.

Herbeheretako Johan Huizinga historialari eta kulturaren teorikoak *Homo Ludens* (jolasten duen gizakia) hitza erabili zuen gizakiaren garapenean ondo pasatzeak duen garrantzia azpimarratzeko. Berak defendatzen zuen *Homo Sapiens* edo *Homo Faber* deituak (gu geu) jolasa berezkoa duela bere izatean, eta beharrezkoa. Betidanik izan gainera, hori atabikoa baita.

**Inauteriak tolosar egutegi
'liturgikoaren' sei egun
gorenak dira [...] Inauteriak ere
modu bertsuan, zorrotz eta
erlijioso ospatuko ditugu.**

**Ahaztuta bezperan izandako
lan gatazka edo munduan
dauden arazo larri guztiak,
behintzat, egun batez bizitza eta
lagunez gozatzea tokatzen da.**

Lehen esan bezala distentsio bat suposatzen du egunerokotasunean. Oporrek duten funtzio bera betetzen dute, deskonexioarena. Beraz, esan daiteke, inauteriak opor motz batzuk direla, bai denboran eta bai «espazioan», -zergatik ez, ba!- lekualdatze bat bezalakoa kontsidera baitaiteke, Tolosan bertan geldituko bagara ere, herriak guztizko itxuraldatze bat jasaten baitu.

Alabaina, inauteriak ez dira festa soil bat bakarrik. Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatzen denaz harago, Tolosakoak ez dira moztortort-festa arruntak. Gureak benetako maskaradak dira, bere zentzu osoan. Tolosarrak ez dira pirataz, *cowboy*z edo Francoz

moztortortzen. Tolosan benetako piratak eta bakeroak ibiliko dira, eta Franco beraren izpiritu berrarragitua da topatuko duguna. Beste errealtate baten aurrean aurkitzen gara, materiaz harago doana. Identitate-mutazioak, transgresioak hartzen du esanahia hemen. Maskarak eta txantxoak ez dira doakoak, asmatuak edo ondo pasatzeko sortuak; ez dira kuadrilla-uniforme soilak, ezta folklore zahar batetik jasota groteskoa erakutsi nahi dutenak ere, ez parrerako edo izurako imajinatuak. Itxuraldaketa eta transferentzia soziala dira, kritika dira, satira dira. Pertsonaia edo karaktere zehatz batean oinarritu eta hura zalantzan jartzea edo salatzea du helburu. Inauteriek ez dute barkatzen, berez dira burlatiak. Iparraldeko *tobera-munstrak*-en antzera zigor kolektibo bat dira (Europako *charrivari* Frantzian, *cencerradas* Espainian, katzenmusik Alemanian edo *rough music* Ingalaterran).

Bukatzeko, idatzi hau inauterien interpretazio-saiakera txiki bat baino ez da. Guztiz subjektiboa, noski. Hala eta guztiz ere badira inauterietan oso objektiboak diren elementuak ere, eta horiek amaitu nahiko nuke idatzia. Janaz eta edanaz ari naiz. Eta gurean betetzen duten funtzio sozialaz. Gosariak, hamaiketakoak, bazkari eta aforiek rol nagusia dute taldeetan. Otorduak liturgiaren ordutegian sartuko dira eta goitik behera errespetatuko: elkarteak, gazte-lokalak, garajeak, taberna eta jatetxeak lepo, gorputzari atseden txiki bat eman, bateriak kargatu eta berriro lasakeriari bide ematera irtengo dira kuadrillak. Orduan bai, orduan dator azken *apotheosis*.

ataria jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €

HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €

ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • Harpidedunentzat 30 €
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu

Zure irudimena



IKER IRIARTE

*Nolakoa giroa txarangarena
bizitza gaur da, ez da bihar.
Kantak iraun artean ze indar
gero trago ta atsedena.
Zure irudimena
zure irudimena
Niko Etxart edo Nahiko Txar
laster hastera doa zoramena.*



Doinua

Baila Negra

Ordenaren parodia

Wikipediari begiratu
bota eta hortxe topatu
dut nire intereserako
hari mutur aproposa.

Inauterien ezaugarri berezia omen
da, parodia eta satira gi-
roan, «gizarte ordena
urratu eta alderantzika-
tzea». Ederra iruditu
zait.

Izaki sozialak garen
heinean inguruneari
atxikita eta erne bizi
gara, gaizki doana hobe-
tuko dugun asmotan,
gaizki joanarazten dute-
nak noizbait gaindituko
ditugun esperantzan.
Eta akaso ene prisma
subjektiboa izango da,
baina ustea badut ez ote
diren figura batzuk errebindika-
tzen eta beste batzuk irrigarri uz-
ten. Che Guevara, Puigdemont,
mendigoizaleak, sobietarrak, etab.
goratzen; eta, azkenaldian, Tolosal-
dean hain presente dugun Guardia

Zibila, Raxoi, Trump, bankeroak,
popeak eta enparauak erridikuliza-
tzen. Instintuz.

Edonola, egunerokoari desordena
gailentzen zaio. Lagunak gertuago,

ardurak urrutiago, mozo-
rroak babesturik barre-
nak askeago. Pausa bat.
Puntu eta jarrai.

Eta presoak? Eten ho-
netan parterik izaten ote
duten? Beste bat loturik
deino ez gara libre izan-
go, ziur. Bada maite eta
gogoratzen dituztenik,
aske nahian. Garizuma
bezpera baino data ho-
berik ez zait okurritzen
herri sagardotegi bat an-
tolatu eta txandan-txan-
dan ekarpena egiteko,

drama serioa dena jai giroan txer-
tatu eta aldarrikatzeko.

Zertaz mozorrotuko ote dira aur-
ten? Kartelaren zain izaten gara irri-
katan.

Bitartean berriz, txootx!!



ION MINTEGIAGA
'MINDE'
LANGILEA

**Garizuma bezpera baino
data hoberik ez zait
okurritzen herri
sagardotegi bat antolatu
eta txandan-txandan
ekarpena egiteko, drama
serioa dena jai giroan
txertatu eta
aldarrikatzeko**

KOMIKIA JOSEBA ANTJUSTEGIETXARTE



‘Iñauteritisa’

Mundua Wuhaneko koronabirusagatiko kezkak hartuta dagoen honetan, beste gaitz bat nagusitu da gure ekosistema txikian: Tolosako *Iñauteritisa*. Zeure buruarengan edo inguruko norbaitengan identifikatzen baduzu, ez duzu neurri berezirik hartu behar, sortzetiko gaixotasun kronikoa baita. Hona hemen bere fase eta sintomak:

1. Hibernazio fasea. Sintomak: apatia, tristura, nahigabea, gogo falta.

Gaitza kronikoa izan arren, lozorro fase luzea du eta ez da erraza identifikatzeko. Normalean ezkutuatu pasatzen da errutinararen gurgpilean, eta kasurik larrienetan depresioarekin nahastu daiteke.

2. Eklosio fasea. Sintomak: baikortasuna, hitz-jarioa, energia, gehiegizko ongizatea.

Horiek dira gaitza aktibatzen hasi dela erakusten duten lehen sintomak, garai samurra da oraindik. Nahiz eta urte osoko apatiatik ateratzeak aurrerapausoa ematen duen, ekaitzaren aurretik datorren barealdia baino ez da.

3. Garapen fasea. Sintomak: urduritasuna, kontzentratzeko zailtasunak, ez-ohiko irudimena eta sorkuntzarako joera.

Fase honetan hasten da birusa bere hankatxoak erakusten. Gaixoari asko kostatzen zaio inauteria ez den beste ezertan pentsatzea, edozerk iradokitzen dio mozorro edo ideia xeblebre bat, eta zailtasunak ditu eguneroko bizitzan zentratzeko. Haurren kasuan hiperaktibitatearekin edo arreta faltaren defizitarekin nahastu izan da, eta helduetan abstinentsia sindromearen antza har dezake.



IRATI HARTSUAGA
ITZULTZAILEA

4. Euforia fasea. Sintomak: euforia, frenesia, eutsi ezinezko algara, lo hartzeko zailtasunak.

Hauxe da gaitzaren fase akutua eta arrisku-tsuenaren eta bost eguneko

iraupena du (adituek zehaztasun handiz neurtu ahal izan dute, eta beti osteogunetik astearterako egunetan azalartzen da). Gaixoak zailtasunak izaten ditu etxerako bidea aurkitzen, eguraldiarekiko sentsibiltatea galtzen du eta errealitatearekiko kontaktua galtzera iritsi daiteke, beste pertsonalitate bat (edo batzuk) erakutsiz.

5. Erremisio fasea. Sintomak: nekea, giharretako mina, depresioa.

Euforia fasea zenbaterainoko bortitza izan den, proportzioko ondorioak izan ditzake fase honetan, eta luzera ere ho-

rreren arabera da. Hemendik, gaitzak lozorro fasera egiten du normalean.

Birus honen sintomaren bat sumatu baduzu, zaude lasai, ez da hilgarria. Baina zaude adi, medikuek diote infektatu gehienak garapen fasearen gorenera iristen ari direla, beraz, laster iritsiko zaizu euforia. Gozatu, bost egun besterik ez dira izango eta!

Mundua Wuhaneko koronabirusagatiko kezkak hartuta dagoen honetan, beste gaitz bat nagusitu da gure ekosistema txikian: Tolosako ‘Iñauteritisa’



LIZARTZAKO ABESTIEN DOINU ETANEURRIAN

Herriko inauterietarako egindako 11 kantu dituzte Lizartzan. Jaiei nahiz herriari «izaera propioa» ematen dietela jakitun, eta guztiak disko batean jasota dituzte, galdu ez daitezen.

Irati Urdalleta Lete

Euskal Herrian, Tolosako inauteriek sona handia dute, baina eskualdean badira tradizio handia eta izaera propioa duten beste inauteri batzuk ere, esaterako, Lizartzan. Horren erakusgarri dira euren dantza eta abesti propioak.

38 urtez desagertuta egon ostean, duela 27 urte berreskuratu zituzten inauteriak Lizartzan, eta ez nolanahi. Hasieratik erabaki zuten bereziak izango zirela, eta antolatzailerik Kaxianori abesti bat egiteko eskatu zioten. Hor

hasi zen guztia. Kaxianok sortutako *Lizartzako ihauteria*-ren atzetik beste hamar etorri ziren: *Diana*, *Lizartzako ijitoak*, *Kaleko doinuak*, *Ihauteri giroa*, *Ihauteri zaharrei jarritako bertso berriak*, *Ueta*, *Ariñ-ariña*, *Gora Lizartza*, *Aipatzekoak dira* eta *Kalean behera*. Ondo gogoan ditu garai haiek Jesus Mari Esnaolak (Lizartza, 1957). Abesti horietako hainbaten egilea da, eta baita inauteri dantzetan txistularia eta Isk&bila txarangan tronpeta jotzailea ere. Kaxianok lehenengo kanta egin zuenean ez zen herrian bizi, baina hurrengo urtean itzuli eta ideia bati bueltak ematen hasi zen: abesti gehiago egitea.



ASIER IMAZ

Pentsatu eta egin. Pixkanaka, batzuek doinuak sortu zituzten, eta letrak besteek. «Hasi ginen kalejiraren bat egin; fandangoren bat edo beste; gero, taldekide batek hitz batzuk idatzi zituen... Talde lana izaten zen normalean: batek hitzak jartzen zituen, besteak musika...», azaldu du Esnaolak. 2002aren amaieran eman zuten hurrengo pausua: disko bat grabatzea 2003ko inauterietarako. «Hasieran, bertigo pixka bat eman zigun», aitortu du Esnaolak. Izan ere, bera profesionala izan arren, gainerakoak zaleak ziren.

Hasierako beldurrak gairidituta, gaur egun, ezagunak dira bertako kantuak. Diskoa kanpoan ez saltzea erabaki zuten kantu guztiak «herri mailakoak eta oso xumeak» direlakoan, baina herrian sona handia hartu zuten: «Lizartza mailan zabaldu genuen. Oso herrikoia da, eta letrek ere hemengo gauzak kontatzen dituzte». Disko horretan parte hartu zuten Euxebio Etxeberria (Lizartza, 1945) soinu jotzaileak eta Iñaki Azpiroz (Lizartza, 1974) txistulariak eta Isk&bila txarangako tronpeta jotzaileak ere. Lizartzan «errotuta» dauden abestiak direla iruditzen zaio. «Esperientzia polita izan zen. Ziurrenik beste herri batzuetan ez dira entzungo, baina Lizartzan errotuta geratu dira».

Bertako dantzak eta doinuak edukitzea «izugarritzko atxorra» da herri txiki batentzat

Lizartza bezalako herri txiki batentzat harrotzeko modukoa iruditzen zaio. «Geratzeko etorri den materiala da», gaineratu du. Etxeberriak ere iritzi bera du: «Abesti horiek garrantzitsuak dira Lizartzan. Oso gustura kantatzen ditu jendeak». «Nire semeek ez dakite abesti bakoitza zeinek sortu duen, baina bai Lizartzako inauterietako abestiak direla», erantsi du Azpirozek. Diskoa egiteko momentua prozesu bat bezala gogoratzen du Etxeberriak: «Bildu ginen eta batek kalejira bat ateratzen zuten, besteak beste kanta bat... Adibidez, nik kanta bati doinua jarri nion eta koinatuak letra».

Abesti haien sorreran parte hartu ez bazuten ere, gaur egun, oso presente dituzte bizitzan Gotzone Bengoetxea (Lizartza, 1966) silbote jotzaileak eta Isk&bila txarangako saxofoi jotzaileak eta Mateo Zubiria (Lizartza, 1995) txistulariak ere. «Lizartzako inauteriek badaukate identitate propio bat, eta abesti horiek ere laguntzen dute», ziurtatu du Bengoetxeak. Etorkizuneko transmisioari begira, garrantzitsua iruditzen zaio diskoa grabatu izana ere, ez abestien gatik bakarrik, baita inauteri dantzengatik ere. «Lortu zuten proiektu baten inguruan era desberdinetako jendea biltzea. Indarra eman zien inauteriei», gaineratu du. Ildo beretik, Zubiriari ere garrantzitsua iruditzen zaio diskoa, abestiak desagertu ez daitezen: «Guztiak bilduta daudenez, arrisku hori desagertzen da». Lizartzaren gisako herri txiki batean, bertako dantzak eta doinuak edukitzea «izugarritzko atxorra» dela deritzo, eta horrela izaten jarraitzea espero du: «Inauteriak berreskuratzeko lan handia egin zen, eta orain mantentzeko ari gara lanean».

Inauteri doinu horiek hainbat egunetan entzuten dira Lizartzan: puska biltzean, igande eguerdiko dantza saioan, txekorra jan ondoren... «Inauteri guztietan zehar jarduten gara abesti horiek jotzen», dio Azpirozek.

Puska biltzean egiten dute bat Lizartzako doinu eta dantza propioek. Larunbatean eta igandean egiten dituzte puska biltzeak, baserri aldera lehengoan eta kalean bigarrenean. «Larunbatean, orokorrean, txistulari gazteagoak izaten gara», esan du Zubiriak. Baserriz baserri joaten dira, txistua lagun, Lizartzako inauteri dantzak eginez. Igandean, berriz, gauza bera kalean egiten dute, eta inauteri dantza guztiak plazan eginez amaitzen dute puska biltzea. «Guztiok ezagutzen gara eta lagunak gara. Oso giro polita sortzen da, eta ez du lan bat suposatzen».

«Beti dantzari eman zaio garrantzia, baina horiek doinuak ere behar dituzte», ziurtatu du Zubiriak. Bengoetxearen arabera, musikak erabateko garrantzia dauka Lizartzako inauterietan. Argia da, beraz, lizartzarren iritzia: musika-

rik gabe ez dago inauteririk. «Guk bestelako moztzorrik ez dugu edukitzen, musikariarena bakarrik», erantsi du Bengoetxeak. «Niretzat inauterietan musikari izatea lotura bat da, alde batetik, baina inauteriak bizitzeko modu bat ere bada», nabarmendu du Azpirozek. Esnaolak, berriz, mu-



IMANOL GARCIA LANDA

sikari lana eta festa uztartzen ditu inauterietan: «Horretara ohituta nago». Izan ere, beti dago instrumenturen bat eskuan hartuta: «Ez baldin bada dantzarekin, txarangarekin gaude, eta, bestela, bazkalondoan musika jotzen». Ez ditu beste mota bateko inauteriak ezagutzen: «Nire inauteriak musika dira, eta horrela ezagutu izan ditut beti».

Txaranga da Lizartzako inauterietako beste protagonista nagusietako bat. Larunbat eta igande arratsaldean ibiltzen dira, Lizartzako kaleak alaituz. «Txarangarekin Tolosako abestiak, euskal kantuak eta gureak tartekatuz aritzen gara», azaldu du Esnaolak. Adin desberdinetako musikariek kuadrilla bat osatzen dutela dio Azpirozek, eta konfiantzazko giroa dutela. Konpromiso bat bete behar duten arren, argi du zein den Lizartzan aritzearen abantaila: «Exijentzia ez da Tolosan edo beste herri batean eduki dezaketena». Festa giroa nagusitzen da, eta momentu batean «protokoloa» aldatu nahi badute ere, «libre» sentitzen dira, guztia borondatez egiten dutelako.

«Inauteriak gure parte diren zerbait bezala ulertzen ditugu. Lizartzarroek ez genuke urtea ulertuko bertako inauteririk gabe», ziurtatu du Azpirozek. Ildo beretik jo du Es-

naolak: «Berreskuratu zirenetik, egutegian apuntatzen den data dira». Bengoetxeak ere «bizitzako parte bat» bezala deskribatzen ditu jai horiek: «Lizartzarrentzat garrantzitsuak dira, eta musika munduan mugitzen garentzat bereziki». Etxeberriak, berriz, urteen poderioz, galdu egin du grina: «Niretzako orain ez dira hain garrantzitsuak, baina lehen bai». Gazteagoei, aldiz, gogoz bizi dituzte. «Inauteriak gauza seguru bat bihurtu dira», esan du Azpirozek.

Aurtengo inauteriei begira daude jada. Pasa den larunbatean hasi zituzten gibela dastatuz, eta musika hotsek ez dute etenik izango igandera arte. «Ezer berririk ez dugu egingo aurtengo inauterietan, musika aldetik behintzat», azaldu du Esnaolak. Aste-

buru hau «topera» aprobetxatzeko asmoa dauka: «Ea eguraldi ona egiten digun, eta umorez ondo pasatzeko aukera daukagun». Etxeberriak soinu jotzaile lanak utziak baditu ere, festaz gozatzen jarraitzeko asmoa du aurten ere: «Jada ez dut soinua jotzen, baina kantatu bai».

Lizartzan ez da Tapia eta Leturiaren abestiak esaten duen bezala, «hik lan eta nik jai» egiten. Dantzan eta kantuan aritzeko, ezinbestekotzat jo dute herriarren parte hartzea eta elkarlana. Izan ere, festak aurrera ateratzeko herriar askok lan egin beharra daukate. «Talde lanean ateratzen ditugu aurrera festak», nabarmendu du Zubiriak. Adibide argi bat ere eman du: «Gu puska biltzen gauden bitartean, beste batzuk hamaiketako jartzen ari dira. Saiazen gara besteen lan horretaz ere jabetzen». Bengoetxearentzat ere «oso intentsoak» izaten dira inauteri egunak: «Ahal dugun gauza gehienetan hartzen dugu parte; musika jotzen ere bai, baina baita beste zerbait prestatzen edo antolatzaileei laguntzen ere». Beraz, festa, musikari izatea, dantza egitea nahiz bestelako lanak, denak uztartzen dira Lizartzako inauterietan. Laburbilduz, festak herriko jendeak eta herriarentzat egiten dituzte.

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Festa muinetik festaren berri emango du 'Ataria'-k

Ostegun Gizenean txupinazoa zuzenean eskainiko du '28 Kanala'-rekin elkarlanean

Erredakzioa

Galdu ezinezko festa egunak datoz tolosar zein bisitarientzat: Inauteria. Festan protagonista direnek, euren burua ikusi nahi izaten dute eta, ezinbestean mozorro jaia galduko dutenek horren berri izateko modua bilatu nahi izaten dute. Guztiarentzako aukera emango du TOLOSALDEKO ATARIAK.

Ostegun Gizenean 28 Kanala-rekin elkarlanean, urteroko ohiturari jarraituz, txupinazoa zuzenean eskainiko du ATARIA-k, www.ataria.eus-en une-

an uneko irudiak jarraitu ahal izango ditu inauterizaleak, 11:30etik aurrera. Baita entzungai noski, ATARIA IRRATIAN ere.

Irrati uhinak presente

Pasahitza saioak irratsaio bereziak eskainiko ditu San Frantzisko pasealekuk, artxibo ondotik. Zaldunita, Astelenita eta Asteartitan irrati kalera aterako da 11:00etan hasita, eta webgunean zein 107.6 fm-ean entzungai izango da.

Irrati zuzeneko gehiago ere izango dira. Beotibar pilotalekutik esaterako, Astelenita eta Asteartitan pilota partiden kontakizuna egingo da: Bengoetxea-Mariezkurrena eta Altuna-Galarza lehiatuko dira lehen egunean eta Jaka-Zabaleta eta Artola-Imaz bigarrean.

Egunero-egunero gainera, argazki eta bideo galeriak eta protagonisten elkarrizketak izango dira webgunean. Eta urtero legez, Atarikideek egunero jasoko dute egunkaria etxean.




Casinetik jarraipena egingo zail txupinazoan gertatzen denari. IBAILLUQUE



ataria
argazki lehiaketak

Mozorro onenaren bila



R. ZABALA
SINCE MORE THAN 200 YEARS

Lau pertsonarentzako otordu bat Zabala sagardotegian.
Goiburua auzoa, Aduna
• 943 69 07 74 • rzabala.com
ataria.eus-eko erabiltzaileen saria



LUR-LAN

Bi pertsonarentzako bi afari Lurlan Bistrot dendan.
Plaza Berria 2, Tolosa
• 943 24 33 39 • lurlanbistrot.eus
Atarikideen saria



ALDEKOA

Suite Baztan saria:
Bi pertsonarentzako gau bateko egonaldia: Jacuzzi logela eta gosariekin, Zigako Aldekoa Landetxearen eskutik
948 45 26 06 • www.aldekoa.es
Epaimahaiaren sari nagusia

«Umore handiz etortzen dira, eta joaterakoan oihu eta umore hobe erakusten dute»

JUAN INAZIO GARMENDIA
TXANTXO OHIA

Gazte garaian txantxo moduan ibili zen dantzan, eta egun Txantxoak noiz etorriko zain egoten da, guztientzako hamaiketako prestatur.

Eneritz Maiz Etxarri

Txantxoak makil hotsek esnatzen dute Abaltzisketan inauterietako igandea, eta Juan Inazio Garmendia (Abaltzisketa, 1958) dantzarietako bat izana da. Hiru bat urtez ibili zen dantzari moduan, eta soldaduskara joan aurretik utzi zuen. Egundak, hamaiketako ederra prest izaten du etxera etortzen diren txantxoentzat.

Zure ume garaian baziren txantxoak Abaltzisketan?

Ez. Nire garaian ez ziren txantxoak, nik hamasei edo hamazazpi urte nituenean hasi ginen dantza hori egiten. Batzuk lanketa bat egin zuten festa hori berreskuratzeko, eta horri esker hasi ginen. Bi edo hiru urtean atera nintzen dantzari.

Bazenuen txantxoak berririk alde aurretik?

Ez, egia esan, hasi nintzen urtean jabetu nintzen zer zen. Gero, hasteko momentu horretan, gurasoek bai kontatu zidaten zer izaten zen, baina orduantxe jabetu nintzen.

Berreskuratu zen urte horretan bertan sartu zinen taldean?

Bai, aurreneko urtean. Hasiera guk eman genion.

Eta dantzari moduan?

Dantzari moduan izan zen, bai.

Nolako esperientzia izan zen?

Dantza eta parranda, eta umoreko giroaren nahasketa bat zen. Dantza ez genuen ondo egingo, noski, aurreneko urtean baino, esperientzia oso polita izan zen. Oso talde polita ginen, eta, batik bat, parrandarako giroa. Festa zen.

Aldez aurretik dantza egiteko ohiturarik bazenuen?

Esperientzia pixka bat banuen, baina oso gutxi. Txikitan, hamar edo dozena bat urterekin dantzarako talde txiki bat sortu zen. Aurreneko bat edo beste ikasi genuen, baina oso gutxi.

Zer zen gehiago dantza eta parranda, edo parranda eta dantza tarteka?

Nik uste dut, agian, parranda gehiago izango zela. Dantza egiten genuen, baina herriko buelta arratsaldean goiz bukatzen genuen, eta ohitura genuen Tolosara jaistekoa. Gure makil, txapela, jantzi eta guzti joaten ginen, eta han kalean hots pixka bat ateraz ibiltzen ginen, eta dantza honen segida gaupasa izaten zen. Normalean txapela bat edo bi gutxiagorekin bueltatzen ginen etxera.

Tolosako kaleetan ere egiten zenuten dantza?

Bai, herriaz gain Tolosako kaleetan ere egiten genituen dantza batzuk, baina segituan sakabanatzen ginen. Hasieran taldean ibiltzen ginen, baina batzuk taberna batera eta besteak beste batera, eta bi-hiru alde batetik eta beste bi-hiru bestetik eta... banatuta bukatzen genuen.



Abaltzisketara itzulita, herrian nola mugitzen zinen?

Plazan hasten ginen, eta herriko baserri guztietatik buelta egiten genuen. Oinez, noski. Eguberrietan kantuan ibiltzen ginen bezalaxe.

Gogoan duzu zein ordutarako hasten zineten?

Egunsentirako biltzen ginela gogoan dut. Arropak jantzi eta pixka bat antolatu eta abiatzerako ordu erdi bat jotzen zigun.

Arratsalderako bukatzeko bixi-bixi ibiliko zineten?

Hamazazpi-hemezortzi urterekin orain baino sasoi hobea genuen, eta, bai, arratsaldeko lauretarako behintzat bukatuta izaten genuen herriko buelta. Eta gero, esan bezala parrandarako pentsamendua izaten zen.

Izango zen taldean bakarren bat parrandatik zuzenean etorrita?

Izaten ziren bai orduan ere. Baina ondo eusten genion egunari.

Gustura hartzen zintuzteten baserrietan?

Baziren baserri batzuk nahiko bereziak. Zain egoten ziren ateak zabalik jarrita; garai batean bertako aitona dantzaria izan zelako eta...

Gerora, berriz ere, galdu egiten da ohitura.

Bai. Gure erruz seguru asko, baina galdu egin zen. Pena da, baina dantzarako alferkeria edo errelebo falta... Gerora, berriz ere, batzuk lan asko egin zuten eta berreskuratu zuten. Joxe Luis Zubeldia, Angeles Iztueta eta hor baten jende bat berriz ere berreskuratu zuena. Eta hor jarraitzen dute, eta segi dezatela gainera urte askoan!

Orain, zu zara etxera noiz etorriko zain egoten den horietako bat.

«Ohiturak ere berritu egin behar dira, eta emakumeekin osatzen badute taldea, ongi etorri izan dadila»

Bai, horrela da. Bezperatik ia zain egoten naiz noiz etorriko diren, eta gustura.

Zuzenean indarrak hartzen dituzte hamaiketakoak jarritzen diezuelako?

Bai, ohitura hori dugu. Parrila pizten dut, eta jatekoa egiteaz aparte, soinu jotzailearen atzaparrak berotzeko ere balio izaten du.

Noiz hasi zinen hamaiketakoak prestatzen?

Ez dut gogoan, baina dozenaren bat urte edo hamabost bat urte izango dira. Ez dut hutsik egin orain artean, eta ez dut hutsik egiteko asmorik etortzen baldin badira behintzat. Beraiek ere oso esker onekoak dira, eta jende jatorra da. Gainera, orain dela bi urte izugarritzko oparia egin ziguten.

Sekulako saskia ekarri ziguten, eta segi beharra dago.

Eskertzen dute beraz zuek egiten duzuen lana?

Askok eskertzen dute. Etortzen direnean dantza egiten dute, eta hamaiketakoak egin ostean, joan aurretik berriz ere dantza egiteko ohitura izaten dute. Egia esan, indar gehiagorekin ateratzen zaie bigarrenagoa. Makilaren bat edo beste puskatu izan dute, indartuta joaten direla ematen du, eta gustura. Etorri umore handiarekin egiten dira, eta joaterakoan oihi eta umore hobea erakusten dute.

Etorkizun ona ikusten diezu txantxoei?
Momentuz badirudi baietz, eta espero dut jarraitzea. Egon dira koska batzuk gainditzen zailak, baina orain uste dut aipatu dutela emakumeak sartzeko aukera ere, eta positiboa izango litzatekeela uste dut. Ohiturak ere berritu egin behar dira, eta emakumeekin osatzen badute taldea, ongi etorri izan dadila.



«Indar gehiago zuen Talaiak etortzeak, neskak edo mutilak ziren begiratu gabe»

UXUE IÑURRITA ETA TTIRI GOROSTIDI
TALAI OHIAK

Larunbatean eta igandean ateratzen dira Amezketako Talai dantzariak, astelehena larunbarekin ordezkaturak. Ttiri Gorostidi izan zen, duela 25 urte, Talai dantzari moduan atera zen lehen emakumea. Urte gutxira bide bera hartu zuen Uxue Iñurrita herritarrak.

Eneritz Maiz Etxarri

Talai dantzariak izan ziren Ttiri Gorostidi eta Uxue Iñurrita amezketarrak. Emakumeak izanagatik naturaltasun osoz sartu ziren mutilen tradizioa zuen Talaien festan.

Talaien lehenengo zein oroitzapen duzue?

Ttiri Gorostidi: Txikitatik nik behintzat betidanik ezagutu ditut Talaiak Amezketa.

Uxue Iñurrita: Aitak oso maiteak zituen Talaiak, eta bera izan zen behin galdu eta berriz berreskuratze lanetan ibili zena. Beti beraien atzetik ibiltzen zen, eta urte batean bide-okamera bat erosi zuen, eta Bedaio aldean eta beraien atzetik nola ibili ginen gogoan dut. Zortzi bat urte izango nituen, eta hori da nire lehen oroitzapena.

Gizonek egin eta ospatzen zuten festa bat zen Talaien.

T.G.: Nik beti ezagutu ditut taldeetan emakumeak poltsarekin, eta ni neroni ere horrela hasi nintzen.

U.I.: Soinu jotzailea bera ere askotan emakumezkoa izaten zen, eta poltsarekin ere emakumeak ibiltzen ziren. Baina garai hartan dantza gizonezkoentzako izaten zen.

Baina dantzan hasi zen lehenengoa zara Ttiri?

T.G.: Bai, ni naiz lehenengoa. Hasieran poltsarekin hasi ginen beste lagun bat eta ni. Ez naiz oso garbi oroitzen nola hasi ginen, baina pentsatzen dut 'egin ezazu dantza' bat esanez hasi ginela. Gero mutilak falta zirela uste dut dantza egiteko, eta jende faltarekin animatzen al ginen dantzarako galdetu, eta gu aurrera joan ginela.

Naturaltasun osoz sartu zineten taldean?

T.G.: Bai, bai. Hor ez da inongo arazorik egon, ez neskak ginelako ezta bestelakorik ere. Beti onartuak izan gara osotasunean, eta inongo arazorik gabe eman zen.

Zure kasua nolakoa izan zen, Uxue?

U.I.: Herri ekimenean ibiltzen ginen garai hartan, hamasei-hamazazpi urterekin, eta Talai dantzak egokitzen zirenean nahi zuenak parte hartzen zuen. Ez zen emakumezko edo gizonezko bereizketarik egiten; apuntatzen zenak dantza egiten zuen.

Tradizio horri, beraz, ez zaio lotu gizonena soilik den dantza izaerarik?

U.I.: Agian indar gehiago zeukan tradizioa mantentzeak. Urte askoan egon zen gerra garaian-eta egin gabe, eta nik uste dut indar gehiago zuela herrian Talaiak etortzeak, neskak edo mutilak ziren begiratu gabe.

T.G.: Inoiz ez dut ikusi aurpegi txarrik.

Erakartzen zuten festa zen?

U.I.: Bai. Ibiltzen zirenek eragin positiboa ematen zuten. Giro ona egoten zen, eta parranda puntu horrekin nik gogoan dudan oroitzapena da, gogoarekin joan ginela lehen urtean.

T.G.: Ez dut esango zain egoten ginenik, baina nik uste dut barrutik edukitzen genuela horrelako poz bat; parranda zen, gaztea... dena lotzen zuen, eta oso ondo pasatzen genuen.

Gogoan duzue dantza egindako lehen urtea?

U.I.: Nik dudan oroitzapena da Amezketako baserri asko Talaiengatik ezagutu ditudala. Espero ez nuen baserrietatik, espero ez nuen bideetatik ibili ginela eta baserriak, etxeak eta jendea ezagutu nituela. Bestetik, jendeak zein emoziorekin itxaroten zuen gure etorrera; prest egoten ziren beren ardo botilarekin, gailetekin edo kafea prestatuta, eta zer-nolako pozarekin bizitzen zuten Talaien etorrera.

T.G.: Nik uste dut baserritarak oso zain egoten zirela. Beti zeuden zain, beti zeuden gogotsu, eta prest guri zerbait eskaintzeko.

Zuek gustura hartzen zenuten jatekoa eta edatekoa?

T.G.: Bai, noski baietz. Dena.

U.I.: Oso gustura. Nahi gabe ere bidetxoa egiten genuen, San Martindik abiatu eta Bedaioa jaisten ginen eta... nekatu ere egiten ginen. Gustura hartzen zen bai jatekoa eta baita edatekoa ere.

T.G.: Hasieran, gainera, guztia oinez egiten zen. Gerora furgoneta edota kamioneta batekin hasi ginen. Bitan banatzen ziren, eta esaterako, Larretan, Bartolo aitona ateratzen zen. Talaiak izugarri gustatzen zitzaizkion, asko maite zituen.

U.I.: Nik uste dut denok dugula gogoan Larretara iristen ginenekoa.

Zenbat urte egin behar da atzera? Noiz hasi zineten?

T.G.: 25 bat urte atzera; urte asko. Eta lau edo bost urte egingo nituen.

U.I.: Ni handik hiru edo lau urtera hasiko nintzen. Hamasei-hamazazpi bat urte izango nituen, eta hiru-lau urtez atera nintzen.

Aspertu egin zineten?

T.G.: Ez dakit aspertzea izan zen, babiliteke. Jendea atzetik ere bazetorren. Agian inauteriak izan, eta parrandak ez zuen dena lotzen.

U.I.: Ikasketengatik izan zela esango nuke. Arrasatera joan nintzen ikastera, eta agian astelehena ez zen jai izango hemen bezala.

Tolosako inauterien ajerik izaten zen?

T.G.: Bai, urtero. Damutzen ginen goizean, baina hala ere berdin zion. Ateratzen ginen momentutik dena ahazten zen, eta agian gauean berriz ere parrandara joaten ginen. Ondo pasatzen genuen!

U.I.: Indarra genuen garai hartan, eta denerako ematen zingun.

Ondo pasatzea zen helburua, edo dantza fin-fin egitea?

T.G.: Biak. Parrandatik zetozen batzuk, eta gu ere bai. Baserri batzuetan esan egiten zuten gainera: 'Hemen txukun egin behar diagu, el'. Eta saiatzen ginen ahalik eta txukunen egiten.

U.I.: Festa baserritik baserrira izaten zen. Trikitia jotzen zuten eta guk makilak astintzen genituen. Gainera, baserri batzuetan, eguna ondo hasteko, kafea anis pixka batekin ematen ziguten. Eta ez genuen asko behar izaten aurreko egunekoarekin batzeko. Animatuta ibiltzen ginen hasieratik, baina egia da, dantza egin behar zenean serio egiten genuela.

«Baserritarrak oso zain egoten ziren. Beti zeuden zain, beti zeuden gogotsu eta prest guri zerbait eskaintzeko»

Tolosako inauteriak

KALDEREROAK OTSAILAK 15

10:30. Tolosako Erraldoi eta Buruhandiak, Tolosako dultzaineroez lagundurik. Irteera Gernikako Arbola plazatik.

12:00. Aiz-Orratz elkarteko txaranga irtengo da elkartetik bertatik.

12:30. Haur Jaialdia, Aiz-Orratz elkarateak antolatuta, Leidor aretoan. Jaialdian Txantxo Lehiaketako irabazleen berri emango da.

19:00. Urdiña Txiki elkarateak antolatuta, Kaldereroen Konpartsa aterako da, Plaza Zaharretik.

23:30. Incansables txaranga, kalez kale.

KALDEREROAK OTSAILAK 16

12:15. Inauterietako kontzertua, Tolosako udal musika banda eta udal txistulari banda, Berdura plazan.



OSTEGUN GIZENA OTSAILAK 20

11:15. Udal txistulari bandak inauterietako Zortzikoa joz egingo du ohiko ibilbidea.

11:45. Kabi-Alai elkarateak Incansables txaranga 2020ko Kabi-Alai Kuttuna izendatu du. Ondoren pregoia.

12:00. Plaza Zaharrean, suziria jaien hasiera iragartzeko.

12:00. Pintxana eta Kabi-Alai txarangen irteera, Plaza Berritik eta Plaza Zaharretik.

16:30. Zezen Plazan zezen-festa, Pintxana eta Kabi Alai txarangak alaitua.

Ondoren. Kalejira.

19:30. Emakumeon plazatik zezen suzkoa irtengo da. Ero Etxe elkaratearen eskutik.

20:00. Aurrera kirol elkaratearen danborrada.

23:00. Txosnagunean Ziakhus eta Little Martin Selektah.

OSTIRAL MEHEA OTSAILAK 21

11:30. Ozenki txistulari taldearen kalejira.

16:30. Zezen plazan xexen-festa, Kabi-Alai txarangak alaiturik.

Ondoren. Kalejira.

20:30. Ostiral Mehe eguneko danborrada.

22:00. Txosnagunean eskualdeko taldeen kontzertuak.

22:30. Arpegi taldeak antolatuta, Ostiral Mehe eguneko jaialdia Leidor aretoan, 40. urteurrena.

23:30-01:30. Jainekin txarangaren irteera.



ZALDUNITA BEZPERA OTSAILAK 22

11:00. Tolosako Erraldoi eta Buruhandiak, Tolosako dultzaineroez lagundurik. Irteera Gernikako Arbolatik.

11:30. Musika eskolako ikasle bandaren kalejiraren irteera, musika eskolatik.

11:30. Udaberri dantza taldeak antolatuta, dantzari txikien kalejira abiatuko da Triangulotik. Herriko hainbat tokitan saioak eskainiko dituzte.

12:00-17:00. Kabi-Alai elkarteko txarangaren irteera.

17:00. Aiz Orratz elkarateak antolatuta, haur danborrada aterako da Geltoki kaletik.

19:00. Tolosako danborradaren irteera Plaza Zaharretik Tolosako udal musika

bandarekin. Geldialdiak: Plaza Zaharra, Berdura plaza eta Rondilla 14.

22:30. Txosnagunean Leizeak, El sonido de la metraia, Streetwise eta Dinamita taldeen kontzertuak.

23:30-01:30. Oriako Txaranga eta Iraunkorrek txarangak kalez kale.

ZALDUNITA OTSAILAK 23

08:00. Diana, Tolosako udal musika bandarekin.

08:45. Udal txistulari bandak ohiko ibilbidea eginez, Inauterietako Zortzikoa joko du.

10:00. Txarangen irteera.

11:00. Plaza Berrian sokamuturra Kabila txarangak alaituta.

11:00. Karroza eta konpartsen irteera.

15:45. Udal txistulari bandak *Idiarena* pieza joz egingo du ohiko ibilbidea.

16:00. Kalejira Alcoyano, Veleta-Aiz-Orratz eta Urdiña Txiki txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen plazara.

16:30. Zezenak Zezen plazan, txarangak eta udal txistulari banda ariko dira ikuskizuna alaitzen.

Ondoren. Kalejira.

19:00. Txosnagunean kontzertua: Laket.

19:00. Dantzaldia Berdura plazan Alcoyano, Veleta-Aiz-Orratz eta Urdiña Txiki txarangekin.

22:30. Txosnagunean Bake faltsua eta DJ Jotatxo taldeen kontzertua.

23:30-01:30. Kalkan eta Oriako txarangak kalez kale.

ASTELENITA OTSAILAK 24

09:00. Txarangen irteera.

11:00. Plaza Berrian sokamuturra Txinparta txarangak alaituta.

11:00. Karroza eta konpartsen irteera.

15:30. Gaztea Errepidean! Kamioi ibiltaria. DJ Txurru eta Oihan Vega, eta Yogurinha Borovarekin dantzaldia. Irteera Nafarroa etorbidetik.

16:00. Kalejira Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen Plazara.

16:30. Zezenak Zezen plazan. Txarangak ariko dira ikuskizua alaitzen.

Ondoren. Kalejira.

19:00. Dantzaldia Berdura plazan, Tolosano, Poca Tripa eta Arco Iris txarangekin.



PIJAMA ERANTZI EZINA

Zaldunita eguna goizean goiz hasten da tolosarrentzat, pijama kendu ezinda, kalera atera ohi dira dianak jarritako doinuei erantzun asmoz. Gorriti plazatik abiatzen dute kalejira 08:00etan, eta eguraldia lagun edo arerio, bi orduz luzatu ohi da. **IRATI URDALLETA**

19:00. Txosnagunearen erromeria: Muxutruk.

21:30. Little Martin Selettah eta Bassagain soinu sistemaren kamioi ibiltaria. Triangulotik Rondillan barrena.

22:30–00:30. Txosnagunean kontzertua: Marianitox blai eta DJ Bull.

22:30–00:30. Bonberenea eta Incansables txarangak kalez kale.



ASTEARTITA OTSAILAK 25

06:00. Udal txistulari bandak Alborada joko du udaletxeko arkupetan, Berdura plazan eta Felipe Gorriti plazan.

08:00. Elkarreetako txarangek alaituta, Pattar zezena Zezen plazan.

Ondoren. Kalejira.

11:00. Plaza Berrian sokamuturra Kabila txarangak alaituta.

11:00. Karroza eta konpartsen irteera.

12:00. Plaza Berrian txarangen bilkura: San Esteban, Sukalde, Arco Iris eta Txapel Haundi txarangen eskutik. Euria bada, Berdura plazan.

Ondoren. Kalejira Gaztelako Ateraino.

15:45. Udal txistulari bandak, ohiturazko ibilbidea eginez, Idiarena joko du.

16:00. Kalejira: Txapel Haundi, Sukalde eta San Esteban txarangekin, Plaza Zaharretik Zezen plazara.

16:30. Zezenak Zezen plazan; txarangak eta udal txistulari banda ariko dira ikuskizuna alaitzen.

Ondoren. Kalejira.

19:00. Dantzaldia Berdura plazan Sukalde, San Esteban eta Txapel Haundi txarangekin.

23:30–01:30. Incansables Zaharrak txarangaren irteera.

PIÑATA IGANDEA MARTXOAK 1

11:00. Poca Tripa txaranga lurreamendi egoitzara joango da.

16:30. Zezen plazan xexen festa Klean txarangak alaituta.

Ondoren. Kalejira.

Eskualdeko inauteriak

LIZARTZA

OTSAILAK 14, OSTIRALA

14:15. Eskolak antolatuta mozorro festa.

Ondoren. Kalejira.

OTSAILAK 15, LARUNBATA

07:00. Plazan elkartu eta kalejira Uetako zubitik dantzari, txantxo eta txistulariekin. Diana abestuz hasiko da inauteria.

07:30. Puske biltzea, dantzari eta txantxoak elkarrekin ospeletik.

10:00. Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.

12:00. Mozorro, gurdi eta txarangen irteera Joxe Mariko aparkalekutik.

13:30. Inauteri partaide guztiek kalejira, Arrateko zubitik irtenda. Ondoren, denok elkarrekin bazkalduko dute herriko frontoian.

18:00. Gurdi eta mozorroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko dira kalejiran plazara jaisteko, bertan sagardotegi ezberdinetako sagardoak eta Lizartzako talogileak egindako taloak jateko aukera izango da.

OTSAILAK 16, IGANDEA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako plazan.

12:00. Dantzariak kalean ibiliko dira puska biltzen gurdi, mozorro eta gainerakoekin batera.

Ondoren. Lizartzako Inauteri Dantzak plazan. Talde gonbidatua: Astigarragako Astigar Dantza Taldea.

14:00. Inauteri bazkaria herriko pilotalekuan, txarangaz alaiturik.

Ondoren. Zozketak eta herri kirol erakustaldia Karmele Gisasola (Zelai III), Jon Gisasola (Zelai IV) eta Mikel Agirrerren eskutik.

19:30. Plazan ijitoa errez inauteriei amaiera.

BERASTEGI

OTSAILAK 14, OSTIRALA

14:45. Eskolako desfilea, herrian zehar.

16:00. Desfilearen amaiera, eskola atarian dantza eginez. Jarraian, Txokolate jatea, guraso elkartearen eskutik.

17:30. Haurren dantza, trikitixa eta txistu emanaldia.

19:00. Pintxo pote mozorrotuta.



OTSAILAK 15, LARUNBATA

11:30. Txupinazoa, arbiaren igoerarekin batera.

Ondoren. Hamaiketako eta jolasak plazan, Urepele elkartearen eskutik.

13:00. Mozorroen desfile, koreografia... Plazan.

14:00. Herri bazkaria.

17:30. Kalean txaranga tabernaz taberna.

Iluntzean. Lunch eta DJ Txoko Urepele elkartean.

AMEZKETA

TALAI DANTZARIAK

Otsailak 22, larunbata. 08:00. Udaletxe azpian elkartu eta Bedaioke eta Amezketako baserrietan ibiliko dira.

Otsailak 23, igandea. 08:00. Udaletxe azpian elkartu, eta Ugartera joango dira. Gero, Zubillaga auzora joango dira eta, azkenik, Amezketako kaleak pasako dituzte.

ABALTZISKETA

TXANTXOAK

Otsailak 23, igandea.

08:00. Baserrietatik barrena hasiko dute ibilbidea.

11:00–11:30. Abaltzisketako herrigunera iritsiko dira. Udaletxean eta etxeetan dantzatu eta gero, baserrietako bidetara ekingo diote.

KALDEREROAK

OTSAILAK 14, OSTIRALA ANOETA

18:00. Entsegua, 17:45ean eta hasiera 18:00etan, plazan. Kalejira herritik, eta ondoren, txorizo pintxoak plazan, Ateaga elkartek prestatuta. 5 urte baino gutxiago duten haurrek beren gurasoekin joan beharko dute.

IBARRA

18:00. San Bartolome plazatik aterako dira.

IRURA

18:30. Kalejira Kulturunetik abiatuta eta ondoren, merienda.

ZIZURKIL

15:30. Pedro Mari Otaño ikasle eta gurasoen kalejira, ikastetxetik abiatuta.

**Tolosako Kaldereroen egitaraua 30. orrian.*

Garraioa inauterietan

TSST Donostia	Otsailak 20 (osteguna) eguerdiko 12:15etik, Otsailak 21 (ostirala) goizeko 6:00ak arte Autobusak Larramenditik sartuko dira Arriaraneko biribil gunean galelekua eginez, eta ondoren, autobidea eta Amarotzetik barrena, Kondeanekora (Zumardi haundi) iritsiko dira, ibilbidearen amaiera eta ondorengo hasiera izanez. Ez dira zezen plazara sartuko.	
	Otsailak 21 (ostirala) 6:00etatik 9:00etara, Amarotzetik Zezen Plazara eta Bialeitik irten.	
	Otsailak 21 (ostirala) goizeko 9:15etik, 18:00etara, Ohiko zerbitzua izango da	
	Otsailak 21 (ostirala) 18:00etatik zerbitzua amaitu arte Autobusak Larramenditik sartuko dira Arriaraneko biribil gunean galelekua eginez, eta ondoren, autobidea eta Amarotzetik barrena, Kondeanekora (Zumardi haundi) iritsiko dira, ibilbidearen amaiera eta ondorengo hasiera izanez. Ez dira zezen plazara sartuko.	
	Otsailak 22 (larunbata) goizeko 11:00etatik, Otsailak 26 (Asteazkena) goizeko 6:00ak arte Autobusak Larramenditik sartuko dira Arriaraneko biribil gunean galelekua eginez, eta ondoren, autobidea eta Amarotzetik barrena, Kondeanekora (Zumardi haundi) iritsiko dira, ibilbidearen amaiera eta ondorengo hasiera izanez. Ez dira zezen plazara sartuko.	
	Asteazkena 26, goizeko 6:15etik 9:00etara, Amarotzetik Zezen Plazara sartuko dira eta Bialeitik irten. 9:15etik aurrera, Ohiko ibilbidea	
TOLOSALDEA BUS Amezketeta, Berastegi, Leaburu, Lizartza, Bidania, Apatta, Anoeta, Villabona, Asteasu, Izaskun...	Otsailak 20 (osteguna) eguerdiko 12:15etik, Otsailak 26 (asteazkena) goizeko 9:00ak arte Rondilla 34ko geltokia zerbitzutik kanpo geratzen da eta bere ordez , Santa Klara (Zumardi txikian) izango da geltoki bakarra.	
	Otsailak 26 (Asteazkena) goizeko 9:15etik aurrera, Ohiko ibilbidea	
HIRIBUSA	Otsailak 20 (osteguna) eguerdiko 12:15etik, Otsailak 21 (ostirala) goizeko 9:00ak arte Rondilla 34ko geltokia zerbitzutik kanpo geratzen da eta bere ordez, Santa Klaratik (Zumardi txiki) abiatuko da. San Frantzisko, Labaien, Berazubi eta Paper kaleko galelekuak zerbitzutik kanpo.	
	Otsailak 21 (ostirala) arratsaldeko 18:00etatik zerbitzu amaiera arte Rondilla 34ko geltokia zerbitzutik kanpo geratzen da eta bere ordez, Santa Klaratik (Zumardi txiki) abiatuko da. San Frantzisko, Labaien, Berazubi eta Paper kaleko galelekuak zerbitzutik kanpo.	
	Otsailak 22 (larunbata) goizeko 11:00etatik, zerbitzua amaitu arte Rondilla 34ko geltokia zerbitzutik kanpo geratzen da eta bere ordez, Santa Klaratik (Zumardi txiki) abiatuko da. San Frantzisko, Labaien, Berazubi eta Paper kaleko galelekuak zerbitzutik kanpo	
	Otsailak 23 (igandea) goizeko 10:30etik 14:30era eta arratsaldeko 16:00etatik 22:00etara Ibilbide berezia Zubi Berria – Usabal industrialdea – Amarotz (Iruña etorbidean) - Kondeaneko aldapa – Zubi Berria	
	Otsailak 24 (Astelehena) eta Otsailak 25 (Asteartea)	
	7:30 – 10:00	Santa Klara (Zumardi txiki) - Foruen – Geltoki – Iurre – Iurreamendi – Usabal – Industrialdea – Amarotz – San Blas – Iparragirre – Zabalarreta – Kondeaneko – Klinika – Santa Klara
	10:30 - 14:30 16:00 - 22:00	Zubi Berria – Usabal - Industrialdea – Amarotz (Iruña etorbidean) - Kondeaneko aldapa – Zubi Berria
	Otsailak 26, (Asteazkena) 9:00ak arte Rondilla 34ko geltokia zerbitzutik kanpo geratzen da eta bere ordez, Santa Klara (Zumardi txiki) abiatuko da. San Frantzisko elizakoa, Foruen etorbidera mugitzen da.	
	9:15etik aurrera, ohiko ibilbidea	

renfe

TOLOSA-DONOSTIA/IRUN

Astelehena 24: 01:20, 03:25, 04:53 eta 05:56.

Asteartea 25: 01:20, 03:25, 04:50, 04:53, 05:41 eta 05:56.

TOLOSA-BRINKOLA

Astelehena 24: 03:30, 05:30 eta 06:03.

Asteartea 25: 05:33 eta 06:03.

Eska ezazu Gau Jaia! txartela.
Itzulerako bidaia egiteko balio
dizu, 00:00etatik, hurrengo
eguneko 10:00ak arte.

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro eguzkitsua eta epela. Goizaldean eta azken orduetan hodeigune batzuk agertu arren, gainontzeko orduetan zeru urdina nagusituko zaigu. Haizeak aldakor samar joko du, lehen eta azken orduetan hegotik

finkatuz eta tenperatura altuenek beste koska pare bat gora egingo dute, 16-18 gradutan joaz goia.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

LARUNBATA

Kalderero eguna giro epel eta

eguzkitsuarekin dator. Egun osoz hego-mendebaldeko haizeak joko du, arratsaldean tarteka bizi eta horrekin tenperatura altuenek gora egingo dute, urte sasoi honetarako balio altuetan geratuz. Tenperatura balio gorenenak 19-21 gradu bitartean errendituko dira, baztertu gabe Tolosaldeko txokoren batean goraxeago geratzea. Zeruian aldiz, ia egun osoz urdina nagusituko da.

IGANDEA

Giro epel eta argiarekin jarraituko dugu. Zeruian goi-hodei gehixeago agertuko da, batez ere, egunaren bigarren zatian, baina bestelako ondorioz ekarri gabe. Ondorioz, egun osoan zehar giro argia izango dugu. Haizeak hego-mendebaldetik eta tarteka bizi jotzen jarraituko du. Tenperatura balio altuenek beste koskatxo bat gora egin eta 20-22 gradutan joko dute goia.

OSTIRALA
14



IGANDEA
16



LARUNBATA
15



ASTELEHENA
17



INAUTERIETARAKO EGURALDI JOERA



OSTEGUN GIZENETIK ASTEARTITARA

Momentuko aurreikuspenak jarraituz, ostegunean txupinazo garaian giro lasaia izango dugula dirudi. Hala ere, egun amaieran fronte batek euria ekarriko luke. Kaskarraldiak ostiralean iraungo luke, ondoren asteburuan giro lasai eta nahiko epela geratuz. Lasaialdi horrek astelehenean ere jarraipena izango duela dirudi, astearterako beste fronte batek euria eta tenperatura hotzagoak ekarriko dituelarik.

ASTEBURUKO FARMAZIAK



OTSAILAK 14, OSTIRALA IBARRA

Egunekoa. Edurne Mujika Martinez.
Euskal Herria kalea, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

OTSAILAK 15, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

OTSAILAK 16, IGANDEA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

OTSAILAK 17, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa. Ignacio Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
Telefonoa: 943 67 01 28

EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA:

TOLOSA • L. Azpiroz Galarza.
Amarotz auzoa, 9.
Tel.: 943 67 51 18

*Otsailaren 24tik aurrera helbide
aldaketa: Larramendi, 6.

INAUTERIETAKO FARMAZIAK



OTSAILAK 20, OSTEGUNA AMASA-VILLABONA

Egunekoa. JM. Sanchez. Kale Berria, 34.
Telefonoa: 943 69 11 30.

OTSAILAK 21, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa. C. Bronte. Korre kalea, 20.
Telefonoa: 943 67 60 13.

OTSAILAK 22, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa. R. Morant. Zabalarreta, 1.
Telefonoa: 943 67 38 49.

OTSAILAK 23, IGANDEA AMASA-VILLABONA

Egunekoa. Juana Maria Sanchez Alias.
Kale Berria, 24. Telefonoa: 943 65 46 10.

OTSAILAK 24, ASTELEHENA IBARRA

Egunekoa. E. Mujika. Euskal Herria, 3.
Telefonoa: 943 67 09 15.

OTSAILAK 25, ASTEARTEA IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria kalea, 24.
Telefonoa: 943 67 32 74.

OTSAILAK 26, ASTEAZKENA TOLOSA

Egunekoa. JM. Etxebeste.
Gernikako Arbola, 3.
Telefonoa: 943 65 10 40.



Ogitartekoen tenplu berria.

Denak **GOXO GOXOAK** edari on batekin
ezin hobeak. **HARRITUKO** zaituzte.

Denen gustukoak, **BETIKOAK**,
EXOTIKOAK, **FAMILIARRAK**, **XXL**
hori dena gure lagun **SUKALDARIEN** eskutik.

Audi Teknikaren aitzin-aitzinean

FLOW
Esan jarrera, esan pertsonalitatea



Audi Q3 Sportback berria

Flow, coolness, magic touch, easygoing... Kanpoaldeko kirol-diseinuak eta egokitzeko gaitasuna duen barrualdeak nabarmentzen den pertsonalitatea eskaintzen diote Audi Q3 Sportback berriari, ikono bihurtuz. Ikono, big star edo nahi duzun bezala esan, garrantzitsuena ez delako gauza bakoitzari ematen diozun izena, gauza bakoitza zuretzako zer den baizik.

Autowag Tolosa

Usabal poligonoa, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q3 Sportback berria :110-169 KW (150-230 CV). CO2 isurketak (g/km): 150tik 206ra (NEDC: 123tik 174ra). Kontsumoa (l/100 km): 5,9tik 9,1ra.